





Hitza egunero,
Goierritarra
hamabostero





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

3URTEKO
BERMEA



FREELANDER BERRIA

NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

EUROLAN
4x4

Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefona: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefona: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde, Iñaki Hidalgo eta Landarlan.

Azaleko argazkia: BKE argazki artxiboa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldi-karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Irailak 19:

X. Azoka ekologikoa Zerainen

Zeraingo Kultur asteari amaiera emango dio azoka ekologikoa. Hamargarren edizioa izango du aurten. Zerain Dezagun fundazioak eta Biolur Gipuzkoako antolatuta, irailaren 19an, goizeko 9etatik ordu biak arte, hainbat produktu ekologiko erosi eta dastatzeko aukera izango da. Barazkiak, fruta, esnea, gazta, ardoa, ez-tia, mermeladak, ogia, pastak... eta Goia-be sukalde ekologikoak prestatutako pintxoak. Azoka ekologikoan erosleak aurkitu ahal izango dituen elikagai guztiak produkzio sistema ekologikoan zertifikatutakoak dira.

Saltzaileei arto almidoiez egindako poltsak banatuko zaizkie. Ohiko plastikozko parekoak dira, baina %100 deuseztagarriak eta konpostagarriak. Papezko poltsak ere eskainiko dira.

Tailerrak ere antolatu dituzte. Hala nola, gozogintza eta kandela tailerrak. Beste hainbat ikuskizun ere bai: artzainen bizimoduaren erakusketa, koltxoi jotzea, tolarea, erlazaintza ekologiko erakusketa, hazi ekologikoen erakusketa, eta abar. Eguna, Xapre trikitilariak alaituko du.

Azoka ekologikoa harremanetarako gune garrantzitsuak izaten dira, produktore ekologikoen, kontsumitzaileen eta produktore ekologiko izateko asmoa dutenen arteko topagunea, alegia. Produktoreak eta produktuak ezagutu daitezke.

Arratsaldean erromeria

Aurreko ikasturtean bezala, irailarekin batera, igande arratsaldeetako erromeriak berreskuratuko ditu Zerainek. Iraileko lehenengoa, igandean, irailaren 19an izango da, arratsaldeko 5,30etan hasita.

Goierritarra Goierrikan jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

2004-IX-17



Urriaren 19an hasiko da ikasturtea "Gozatuz ikasteko gogorik bai? Zatoz orduan Esperientziaren Eskolara!"

Urriaren 19an emango zaio hasiera Esperientziaren Eskolako 2004-2005 ikasturteari. Eskola hau 50 urtetik gorako gizon-emakumeei dago zuzendua eta bertako partaide izango direnei ikasteko gogoia eta irrika eskatzen zaizkie, beste eze-zen gainetik. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, aurtengo kanpainaren aldiz jarriko da martxan ekimena.

Bertan, bi jakintza-multzo landuko dira batik bat: oinarritzakoa, batetik, osasun fisiko eta mentala, gizarte harremanak, komunikaziorako trebetasunak, sexualitatea, adineko pertsonen eskubideak eta abar jorratuko dituenak; eta espezifikoa, bestetik, soziologia, ekonomia, etika, filosofia, zientzia... eta antzeko gaiak lantzeaz arduratuko dena. Ikastaroa, aurreko urteetan bezalaxe, gizarte ekintzako proiektu bat nola gauzatzen den jakinez bukatuko da.

Honetaz guztiaz gain, hainbat ekintza osagarri ere egingo dituzte iniziatiba honetan parte hartzea animatzen direnek. Hala nola, esaterako, bisita kulturalak eta txangoak egin eta beste eskola ezberdin batzuetako jendea ezagutzeko aukera izango dute.

Ikastaroari, esan bezala, urriaren 19an ekingo zaio Ordiziako Goierri Lanbide Eskolan (data horretatik aurrerako astearte, asteazken eta ostegunetan, goizeko 10etatik 13era) eta 2005eko maiatzaren 31a arte luzatuko da. Izena emateko epea zabalik dago uztailaren 1etik eta halaxe egongo da irailaren 30era arte. Interesatuak Goiekira (Ordiziako Industrialdeko 29.pabiloia. Tfnoa: 943 16 15 37) edo Uggasara (Zumarragako Euskadiko Plaza, 5-2. Tfnoa: 943 72 58 29) jo dezake. Ikasturtearen prezioa guztira 150 eurokoa izango da; kopuru honen erdia, ordea, Kutxak subentzionatzen du. Matrikularekin batera 30 euro ordainduko dira, eta gainontzekoa, zatika emateko aukera izango da. Ikasturte amaieran, euren parte-hartzea egiaztatzen duen diploma emango zaie ikasle guztiei.

Bizitzako esperientzia

Matrikula egiteko garaian Nortasun Agiriaren fotokopia, karnet neurriko argazki bat, matrikula inprimakia beteta eta matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar dira. Beraz, oraindik ere ikasten gozatu eta bere ezaguerak areagotu eta trukatzeko prest dagoen ororentzat, hemen doa ikasle ohi baten mezua: "Esperientziaren Eskolan biziri buruzko beste ikuspuntu bat ezagutu ahal izan dut, ilusio berri bat, aberaste pertsonal bat".



Beasaingo Udal euskaltegia: 'Si o bai?'

Irailaren 7an prentsaurrea eman zuten Beasaingo Udal Euskaltegiko Gurutze Sukiak eta Udaletxeko Euskara Zinegotzia den Aitor Aldasorok, 2004-2005 ikasturteari begira Udal Euskaltegiak dituen eskaintzak azaltzeko. Aurtengo kanpainaren leloa, 'Si o bai' da. Erdal munduan jarraitu nahi duten edo eta euskarara murgildu nahi duten galdetzea da leloaren helburua.

Ohiko euskararen irakaspenaz gain, euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak sustatzen ditu Udal Euskaltegiak. Mintzalagun proiektua da horren adibide-etariko bat. Bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat astean behin elkartzeko dira, naturaltasunez, euskaraz hitz egiteko. 20 euskaldun berri eta 9 euskaldun zahar ari dira proiektuan.

Sukiaren esanetan, gizartearen bilakaren arabera egokitu izan da Udal Euskaltegia eta oraingoan, etorkinei zuzendutako harrera ikastaroa prestatu dute. 60 ordutan, gizartearen funtzionamenduaren berri ematen zaio ikasleari.

Teknologia berriak ere iritsi dira euskaltegira. Nahi den lekutik, internet bidez, Boga programarekin, euskaraz ikasteko aukera dago Udal Euskaltegian.

Izen ematea irailean egin behar da. Euskara ikasteko beka sistema du Udal Euskaltegiak. 160 ikasletik gora aritzen dira urtero, euskara ikasi eta hobetzen.



Ordiziako azoka berezia: Gazta protagonista nagusia 12.100 euro gazta erdiagatik

Azken urteotan iraileko Ordiziako azokan gazta bihurtu bada protagonista nagusia, aurren, zer esanik ez. Anjel Errazti artzainaren gazta izan zen irabazlea eta bere gazta erdiagatik, 12.100 euro ordaindu zituen Lierniko Patxi Erretegiak. Enkantean giroa bizi-bizi egon zen eta Olaberriko Castillo jatetxekoen eta Lierniko Patxi erretegiaren arteko lehia oso urrutira iritsi zen: 12.100 eurotar. Ordiziako Zahar Egoitzarentzat izaten da enkantean biltzen den dirua.

Beste hainbat protagonista

Gaztaz gain beste hainbat lehiaketa ere izan zen irailaren 8an Ordizian.

Gipuzkoako Pirenaika txapelketa: Bergarako Juan Maiora, Idiazabalgo Lorea Katarain eta Prontxio Urkia, eta Irungo Antonio Agirrebarrena izan ziren irabazle, adin ezberdinetako ganaduen artean.

Eusko oiloaren XXIII. erakuslehiaketa: Loteetan, Euskal Oiloa elkartearen lotea izan zen onena. Goierrikoen artean, berriz, onena, Gabiriako Peio Olariaga. Hegaztiak bakarkaka hartuta, oilar Beltza atalean, Ordiziako Jesus Martinez izan zen irabazlea; oilar Goirrian, Euskal Oiloa elkarte; oilar Lepasoilean, Oiartzungo Juan Jesus Galarraga; Marradun oiloetan, Urretxuko Koro Berasategi eta Zilar motakoan, Gabiriako Peio Olariaga.

Plaza Nagusiko barazki eta fruitu lehiaketa: Asteazkeneroko baserriarren artean, Ibarako Montes baserria izan zen irabazlea. Loreetan aipamen berezia jaso zuten Zaldibiako Azanza Anaiek.

Fruitu lehiaketa: Hernaniko Maddi Iradi izan zen irabazlea.

Barazki lehiaketa: Martuteneko Manuel Zabalegik jaso zuen lehen saria.



Idiazabalen Artzai Gazta elkartearen egoitza berria inauguratu da

Irailaren 10ean, ofizialki inauguratua gelditu zen Idiazabalen, Artzai Gazta eta Zumitz elkarteek duen egoitza berria. Kale Nagusiko 37. zenbakian dago. Egoitza berria ikusi eta gazta pintxoak dastatu aurretik, Pilar Eneako lorategian, egin zen ekitaldia. Joxe Felipe Auzmendi beasaindarrak aurkeztu zuen ekitaldia. Artzainez gain, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintari ugari bildu zen Idiazabalen. Antton Irizar Idiazabalgo alkateak, Ordiziari, gaztaren aldeko lanean elkarlanean aritzeko deia luzatu zion.

Artzai Gazta elkartearen helburua, bertoko latxa ardiaren esnearekin egindako gazta artisaua sustatu eta bere kalitatearen alde lan egitea da. Duela 15 urte sortu zen Artzai Gazta. 130 bazkide ditu eta laguntza teknikoa eskaintzen die artzainei.

Igor Esnaola trontzako Euskadiko txapeldun

Legorretako Igor Esnaolak, Joxe Gabirondo lagun zuela, Euskadiko txapela lortu berria du, trontzan. Duela bi urte ere eurek irabazi zuten.

Josetxo Imaz Memoriala, irailaren 26an

Iraileko azkeneko igandean, irailaren 26an, jokatu den Josetxo Imaz lasterketarako izenak emateko epea irekita dago. Vicuña Sport eta Urrutia Kirolak dendetan eman behar da izena, 5 euroren truke. Lasterketa goizeko 9,30etan hasiko da Ordiziako Altamira estadioan. Beasain eta Lazkaoatik barrena osatuko dute korrikalariek 10 kilometroko ibilbidea.

Hesilaharra

Hesilaharra, Nerprun purgatif, Rhamnus cathartica L.

Deskribapena

2-5 metrotaraino iristen den zuhaixka. Adar bakanak eta arantzadunak. Hosto bakun, oposatuak eta erorkorrak. Loreak berdegarak, eta fruituak beltzak eta borobilak.

Gipuzkoan duen ekologia eta hedaketa

Urria da Gipuzkoan. Ez dago ez kostaldean, ezta mendi gainetan ere. Artearen esparruko heskai eta sastraketan aurkitu ohi da gehien bat. Lurzoru karetsu eta harritsuak gustuko ditu.

Ugalketa nola egin

Hazitik nahiko erraz ugaltzeko, udazkenean edo udaberriaren hasieran ereinez gero,

baina zaila gertatzen da aldaxkatik landare berria lortzea. Oso zaila da mintegi komertzialean aurkitzea.

Erabilerak

Fruituak laxanteak eta diuretikoak dira, gehien bat zakurrentzat erabili izan da. Artearen esparruan heskaien osagai bakan gisa erabili daiteke.

Mantenu eta zainketa

Ez du inausketa oso ongi jasaten. Horregatik, hobe da bere horretan hazten uztea.

Hazkuntza

Hesilaharra gelditu hazten den zuhaixka da, eta bost urtetik gora behar ditu planta hartzeko.

Goimen



Egutegi fenolikikoa

	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
Loreak					+	+						
Fruituak								+	+			
Erein			+	+				+	+			
Landatu	+	+										+
Inausketa		+	+									


Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Arrasate eta Eskoriaztako Udalak nekazaritza ekologikoa bultzatzen ari dira:** Batetik Arrasateko Udalak onartu du Biolur Gipuzkoak, Haizea ikerketa S.L.rekin elkarlanean, Garagartza auzoko lur-sailetan landu gabeko lurrrak ekologikoa lantzeko urratsak ematea. Bestetik Eskoriatzan Nekazaritza Ekologikoa hastapeneko ikastaroak lortutako interes ikusirik, Udalak udazkenean beste ikastaro bat antolatzeke asmoa du. Eskoriatzan badira baratze ekologiko publikoak.

✓ **Java uhartean 1906. urtean azaldutako erleen gaixotasun bat iritsi da gurera ere.** 1986an onartu zen bere presentzia. Varroa jakobsoni bezala ezagutzen den akaroak bertako erlauntz gehienak ustegabe hartu eta jipoitzen ditu. Akaro honek erleen larbak parasitatuz, erlauntza ahuldu eta malformazioak eragiten ditu beren erleetan. Ondorioa, erlauntzen heriotza litzateke. Egun erlezainak ongi dakite tratamendua egin behar zaiela, barroasiaren erasoak ekiditeko... baina basoan aurkitzen ziren erlauntzak, edo eta asilbestaturik joan ziren erlauntzak ez zuten tratamendu aukerarik, eta hauek galdu egin direla esan daiteke, naturan berez polinizazio lanetan diharduten erleak, jadanik ez daude. Gaixotasun honi aurre egingo dion sendagai alternatiboak premiazko zaizkigu. Beste aukera, bertako erlea dugun Erle Beltza babestu eta honen defentsa estrategian fidatzea gertatzen da.



5. Mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzea

Iraunkortasunaren

12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritze-ko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoan aurrean.

Kotxea ez hartzko hamaika arrazoi



Aurrezteak: Kotxeko depositua eta poltsikoa hutsik izateak ez dizu axolako. Oinez joatea dohai-
nik da.

Onura ekologikoa: Berotegi efektua eta orohar kutsadura eragiten duten gasak (CO₂) ez areagotzea lortuko duzu. Bestetik energia kontsumoa murriztea lortuko duzu.

Denbora: Egiten dituzun ibilbide asko oinez eginez gero denbora irabaziko zenuke. Gainera aparkalekuan tokia bilatzeaz ez zara aspertuko.

Osasuna: Lanera, ikastera edo enkar-
gu bat egitera paseo bat emanaz joatea osasungarria da. Kotxea erabiltzeak eragiten dituen kutsadura eta zaratak eragindako gaixotasunak eta sedentaritatea galarazi daitezke.

Harremanak eta kultura: eguneroko ibilbidea inguruaz gozatzeko, seme-alabekin edo lagunekin solasean joateko erabili dezakezu eta baita irakurtzeko ere, garraio publikoa aukeratu baduzu.

Rutinatik ateratzea: kalean, pasatzen den egun bakoitza ez berdina da, egunero dago zer ikusia.



Lasaitasuna: Kotxeek kalean sortzen duten zarata ez den beste soinu atseginagoak entzun ahal izango dituzu. Gidatzeak askotan sortzen duen estresik gabe ibiliko zara.

Segurtasuna: Trafiko handiak eta kotxe gidarien bidegabetasunak eragiten dituen istripuak neurri batean galaraztea lortuko duzu. Kotxerik gabeko guneak seguruagoak dira.

Zenbait sektoreen autonomia: kotxeen erabilerari begira egini-
ko espazio publiko eta garraiobideak haur, adindu eta ezinduentzako oztopoz beterik daude, hauen autonomia galaraziz. Kotxea gutxiago hartzeak gune hauek libre uzten ditu guztien beharretarako.

Goierriko mugikortasun astea eta kotxerik gabeko eguna (irailak 22)

Goierriko udalerri guztietan

- ✓ Goierrialde autobusak dohain aste osoan (Irailaren 16tik 22ra)
- ✓ Panelak erreflexio esaldiekin.
- ✓ Kartel eta diptiko informatzaileak.

Beasain

- ✓ Kale Nagusiaren ixtea (Irailak 22).
- ✓ Gurgildun aukietan ibilaldia (Irailak 22).

Idiazabal

- ✓ Kale antzerkia Oihulari Klown antzerki taldearen eskutik, "Otiacih" antzezpenarekin (Irailak 17, 17:30etan).

Lazkao

- ✓ Bidegorri markatuan zehar ibilaldia (Irailak 22).
- ✓ Gurgildun aukietan ibilaldia (Irailak 22).



Legorreta

- ✓ Kale Nagusiaren ixtea (Irailak 22).
- ✓ Ginkana, Afarimerienda... (Irailak 22).
- ✓ Marrazki lehiaketa herri eskolan
- ✓ Gurgildun aukietan ibilaldia (Irailak 22).

Ordizia

- ✓ Gurgildun aukietan ibilaldia (Irailak 22).

- ✓ Kale antzerkia Oihulari Klown antzerki taldearen eskutik, "Otiacih" antzezpenarekin (Irailak 22, 11:00etan).

Segura

- ✓ Bidegorriaren proiektu aurkezpena.

Zaldibia

- ✓ Gurgildun aukietan ibilaldia (Irailak 22).



2004-2005 KIROL EKINTZAK



BALLET-a
GIMNASIA ERRITMIKOA
AEROBIC-a
MANTENU GIMNASIA

Ordutegi
aukera
zabala!

MANTENU GIMNASIA LEUNA
(3. adina)
JUDO-a
IGERIKETA

☎ 943 88 93 33

ORDIZIA

☎ 943 88 93 53

Lazkaoko San Benito Ikastolako haur txikienek Udaletxea dute ikasgela

Eraikuntzako grebagatik atzeratu egin dira eraikin berriko lanak

railarekin batera, ikasturte berria hasia dute dagoeneko txikienek. Lazkaoko San Benito ikastolakoek, ikasturte hasiera berezi samarra izan dute, batez ere, txikienek, eraikin berriko lanak bukatu gabe daudelako. Ikasgelak inprobisatu beharrean izan dira, ikasturtearen hasiera ez atzeratzearren.

Armando Velez zuzendariak azaldu digu nola konpondu diren.

Lanak atzeratu egin dira. Zergatik?

Neurri honetako lanetan beti sortzen dira ustekabeak eta katramilak, baina arrazoi nagusia agerikoa da: eraikuntzako greba.

Nola eman diozue arazoari irten-bidea? Zenbat ikasle daude behin-behineko egoera horretan?

Aukera bat baino gehiago ibili genituen buruan, baina gurasoen beharrei ahal zen egokiena erantzun nahian, eta irakaskuntza ordurik galdu nahi ez genez, klaseak aurretik esandako egunean hastea erabaki genuen. Horretarako, obren eraikuntzako ikasleak hiru gune desberdinetan banatu ditugu: txikiak, 2 urtetik 4 urte bitartekoak, Udaletxeko zenbait gelatan izango ditugu; 5 urtetik hasi eta LH3 artekoak San Benito eraikuntzan egongo



San Benito Ikastolako zenbait haur, ikasturteko lehen egunean.

Zein obra egiten ari zarete?

San Prudentzio eraikuntzan ari gara, eta obrak bi atal nagusi ditu: batetik, zati guztiz berri bat eraikitzen ari gara, lehengo eraikinari itsatsirik; bestetik, eraikuntza zaharberritzen ari gara (patioa estali, jangela berria, igogailua, doikuntza ugari...) eta guztiari erabilera bateratu eroso bat eman ahal izateko egin beharreko egokitzapenak aurrera eramaten.

Lan hauek hasteko arrazoiak, berriz, bi motatakoak genituen: batetik, ikasleen gehikuntza, gure ikastetxean ikasi nahi duten ikasleen kopurua nabarmen joan baita gorantz azken urte hauetan, eta horrek leku gehiago eskatzen zigun; bestetik, gure ikasleei ahalik irakaskuntza-aukera egokiena emateko nahia, gaur egungo gizartearen beharrei erantzunak diena.

Kilometroak 2003aren helburuetariko bat eraikin berrirako dirua jasotzea izan zen.

Kilometroak festan euskaltzaleek emandako laguntza oso ondo etorri zaigu lan honetarako, eta ezinbestekoa da. Baina horrelako lan batek aurrekontu oso handia dakar berekin, eta beste iturri batzuetara ere nahitaez jo behar izan dugu. Kontuan izan behar da gure ikastola gurasoen kooperatiba dela, eta egiten diren eraikuntza edo hobekuntza guztiak azkenean herriarentzat berarentzat geldituko direla, ez inolako entitate pribaturentzat. Eusko jaurlaritzak horrelako kasuetan lanetan zati bat ordaintzen du. Udalak ere beti lankidetzarako borondatea agertu izan du. Eta hortik aurrerakoan, ikastolak berak ere ahalegin handia egin beharko du, beti ere ikasleen mesedetarako izango dela pentsatuz.

dira, DBH eta batxilergokoeikin batera; eta LH4-5 eta 6koak San Prudentzio eraikuntzan bertan egongo dira, lanek gutxien erasan dioten aldean.

Eta aukera hau aprobetxatu nahi nuke lagundu diguten guztiei eskerrak emateko. Beraz, Lazkaoko Udalari, gelak eta era guztietako erraztasunak eman dizkigulako. Baina beste askori ere eman behar zaizkie eskerrak: Domar da elkarteari, Maizpide euskaltegiari, hain ahalegin berezia egin duten ikastolako langileei... eta baita beste hainbati ere. Jende askoren laguntzeko nahia somatu dugu.

Noizko espero da egoera normaltzea?

Normalkuntza pixkanaka etorriko da. Lanak egiten ari diren eraikuntzan gelak pixkanaka hartuz joango gara, hezikuntza eta beste zerbitzuak era egokian garatu ahal izateko baldintzak daudela ikusten dugunean, guztiz prest daudenean. Nolanahi ere, espero dugu hilaren amaierarako guztia amaitua izango dela.

Gurasoei, ikasleei... eta guztiei, pazientzia apur bat izan beharko dugula, baina ilusioz begiratu behar diogula etorkizunari, hobekuntzak laster nabarituko baitira: instalazio egokiagoak, aukera berriak emango dizkiguten gelak, jangela berria, patio estalia, igogailua... azken batean, guztion mesederako izango diren hobekuntzak.

EUSKAL HERRIKO HEGAZTIEN

3. eguna

2004ko irailaren 26an

SEGURA

10:30etan:

- Euskal Oiloaren erakusketa
- Emuak, faisai, ahate eta beste hegaztien erakusketa
- Oilo eta hegaztien produktuak ikusgai eta salgai
- Munduko txori ezberdinen erakusketa

Zatoz Segurara!!!



SEGURA UDALA



ESKANTZAR IZUGARRIA

☎ 943 16 40 40

Antzizar-Katea, 5
BEASAIN

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Gereziondozko
logela

1.232 €



Irailaren
bukaera
arte!

Somier elektrikoa eta
latex-ezko koltxoia

797 €



Gereziondozko bureau-a

1.600 €



Bitrina


1.175 €

Mahaia

1.175 €

Dena lizarrezkoa





- ✿ Autobusa dohain ✿ Ginkana
- ✿ Kale Antzerkia ✿ Lehiaketak...
- ✿ Gurpildun aukietan ibilaldiak
- ✿ Bidegorri proiektuaren aurkezpenak
- ✿ Bizikleta/patinetan ibiltzeko prestaturiko bidegorriak

Niko Osinalde, Goiturreko kidea: "Goierriin turismoa beste sektore ekonomiko garrantzitsu bat dela garbi dago"

Behin uztaila eta abuztua pasatuta, turismoaren arloan Goierriin izan den bilakaeraren balorazioa egin digu Niko Osinalde, Goiturreko kidea. Gustura dago aurtengo emaitzekin, eta 10 urteren ondoren, turismoa ondo bideratua dagoela uste du.

Gero eta gehiago dira Goierriko leku eta txoko ezberdinetan argazkiak ateratzen ikusten ditugun turistak. Zegama, Segura, Zerain, Beasain, Ordizia, Lizarrustin eta Ormaiztegiako turismo bulegoetatik inoiz baino jende gehiago pasatu da aurtengo uztaila eta abuztuan: 6380 lagun. "Segura adibidez, bi-koiztu egin da. Horrek esan nahi du, zerbait dinamizatzen den lekuan jende gehiago etortzen dela. Ordizia ere asko igo da". Goierriko ohe gehienak beteta egon dira. "Hotelak beteta egon dira. Landetxeen okupazioa %81,78 izan da abuztuan. Irailean ere mugimendu polita dago eta urte bukaera bitartean dauden zubiak kontuan hartuta, emaitza onak direla esango nuke". Euskal Autonomia Erkidegoko da-



Aurten promozioan 14 milioi pezeta gastatu ditu Goiturrek. Osinaldek dioenez, "promozioaren lana jendea Goierriira erakartzea da baina gero bezeroa ondo zaindu behar dugu, zerbitzu ona eman behar diegu. Jende askok errepikatu egiten du eta horrek zerbait esan nahi du".

tuek ere goranzko joera izan dute aurten.

Goiturreko kideak gustura daude eta mugimendu handia egon dela azpimarratu dute. "Zenbat eta gehiago dinamizatu orduan eta emaitza hobek ditugu. 10 urte darma-zkigu turismoa lantzen, eta emaitzak hasi dira ikusten. Beste sektore ekonomiko bat dela garbi dago, sektore ekonomiko garrantzitsu bat".

Datu zehatz bat eman digu: "izan den okupazioa ikusita balantze minimo bat eginda, Goierriin, gutxienez, 180 milioi pezeta gelditu dira. Egun pasa datorren jendeak utzi duena kontutan hartu gabe".

Barruko turismoa gehitzen

Aurten beste datu azpimarragarri bat turisten jatorriaren ingurukoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko herritar asko etorri baitira abuztuan. "Bizkaitar asko etorri da. Donostiako jendea abuztuan Goierriin egon da. Normalean jende hau urtean zehar etortzen da". Gainerakoan, ohi-koak. Estatu espainiarretik ia leku guztietatik etorri dira (batez ere, katalanak, madrildarrak eta valentziarra), Txiletik, Ekuadorretik, Perutik, Britainia Handitik, Italiatik, Bielorrusiatik, Frantziatik, Norvegiatik, Alemaniak, Indiatik, Austriatik, Belgikatik

Krisia

Turismoaren krisiaz asko hitz egin da uda honetan. Niko Osinaldek adierazi duenez, "egia da eguzki eta hondartzen turismo mota jaisten ari dela. Garbi dago, modelo hori pixka bat estankatuta zegoela. Ez jendeak gauza berriak eskatzen dituelako bakarrik, baizik eta beste leku batzutan, Eslovenia, Bulgaria, Errumania, Malta, Chipre eta Tunes asko igo direlako. Orain arte, pribatuek dirua jaso bakarrik egin dute eta ez dute konponketa-rik egin. Beste destino batzuk sortu dira, zerbitzu berdinekin, askoz ere hobeak eta politagoak". Dena den zera azpimarratu nahi izan du: "krisirik handiena ostalaritza sektorean egongo da. Jatetxe asko ixten hasiko dira, hotelak zerbitzu osoa eskatzen hasi baitira".

Hori bai, "krisi hori Euskadi mailan ez da nabaritu ditu, hemengo turismoak ez baitauka zerikusirik turismo mota horrekin", dio.

eta Holandatik. Datu bitxi bezala, Bielorrusiako Energia ministroa izan da Goierriin. Zegamako mendi maratoina etorri zen Italiako kazetari bat ere turista bezala etorri da.

Kolegiatu zkia.: 649 RPS 144/02

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Goierriko Hitza:

goierritarren hitza, egunero, euskaraz

Datorren azaroan, Goierritarra aldizkariak 15 urte beteko ditu, Goierriin, euskara hutsezko informazioa zabaltzen. Garapen ezberdina izan du urte hauetan guztietan aldizkariak. Beti ere, aurrera egiten ahalegindu izan da, nahiz eta askotan bidea ez zen erraza izan.

Oraingoan, aurrerapauso nabarmena egingo da Goierriin, euskarazko prentsan eta euskalgintzan lanean ari diren elkarte eta erakundeen arteko elkarlanari esker. Elkarlanaren fruitua da Goierriko Hitza. Egunerokoan, herri informazioan euskaraz duen hutsunea betetzera dator Hitza.

Urriaren hasiera aldera

Irailaren 11n, 24.000 ale banatu ziren Goierriko etxeetan. Aurkezpen egunkaria izan zen.

Urriaren hasiera alderako dago asmoa egunero egunkaria kaleratzen hasteko. Egunero 8 orrialde izango ditu. Lau orri Goierriko 19 herrientzat izango dira gainerako 2ak, Zumarraga, Legazpi eta Urretxuk beteko dituzte. Azala eta azken orriak, orokorrak izango dira.



Elkarlanaren emaitza

Goierritarra aldizkaria kaleratzen duen Goierritarra Kultur Elkartea, Otamotz aldizkaria argitaratzen duen Zintzo Mintzo euskara elkarte eta Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideak izan dira Goierriko Hitzaren bultzatzaileak. Hauekin batera, eskualdeko hainbat gizarte eragilek ere bultzatu dute proiektua: Maizpide euskaltegia, AEK, Hitzaro euskara taldea, Illati euskara taldea, Goierriko Euskal Eskola, Lekao eta Bertso-Olariak elkarte. Dena dela, Hitzaren alde dagoen edozein elkarte, ikastetxek, enpresak... izango du hurrengo asteetan parte hartzeko aukera. Horretarako, eragileek kultur elkarte sortu dute, eta hor egoteko bakoitzak, behin, gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du.

Herrietako kronikak izango dira Hitzaren oinarri. Publizitatea eta eskelak jartzeko aukera ere izango da.

Egoitza, Beasainen

Egoitza nagusia Beasainen egongo da, Beasaingo Andramendi Ikastolak Urbialde

plazaren azpi aldean dituen lokaletan. Nacex parean. GOIERRITARRA aldizkaria ere bertan kokatuko da.

Bigarren egoitza, Urretxun izango du Hitzak, Labeaga kalean, Otamotz aldizkariaren egoitzan.

GOIERRIKO AURKEZPENAK

Irailak 22, asteazkena: Idiazabalen, Pilar Enean, 19:30ean.

Irailak 24, ostirala: Beasainen, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

Irailak 28, asteartea: Lazkaon, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

Irailak 30, osteguna: Ordizian, Barrenan, 19:30ean.

Aimar Maiz, zuzendari

Lantalde zabala osatu da egunerokorako: 10 lagunekoa lantaldea. Aimar Maiz gabiriarra izango da zuzendaria. Orain arte, GOIERRITARRA aldizkarian Gabiriako kronika egiten aritu da.

Banaketa, etxeraino

Etxeraino enpresa arduratuko da Hitzaren banaketaz. Etxe gehienetan, buzoian utziko da egunero Hitza. Gaineraketan, okinen bidez banatuko da, edo eta leku publikoetan utziko da. Dena den, etxean egunkaria jasotzerik ez dutenekin, banan-banan hitz egin eta, norberak zehaztutako lekuan utziko da Hitza.

Helburuak

Eskualdeko komunikabideak osatu. Helburu nagusia hau da: euskararen normalizazio bidean, Goierri mailako komunikabideak osatea; lehen produktua izango da Hitza egunkaria.

Euskara lagundu. Euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzetasuna sustatzea eta laguntzea.

Normalizazioa. Euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko, egunkaria bera baliagarri izatea.

Elkar ezagutza. Herrietako eta Euskal Herriko euskarazko komunikabideen artean elkar ezagutza handiagoa lortzea, guztien artean erakunde bakar sendoa sortzea.

Erreferentzialtasuna. Euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea.

Goierritarren irakurleei eskutitza

Goierritarra aldizkaria jasotzen duzenok, datozen egunetan, eskutitz bana jasoko duzue, kontraktorik adierazi ezean, Goierriko Hitza etxean jasoko duzuela adieraziz.

Jaso nahi duenak

Goierritarra aldizkaria jasotzen duenak Hitza ere jasoko du etxean. Goierritarraren harpide ez direnak eta Hitza jaso nahi duenak, 943304346 telefono zenbakira deitu behar du. Dohainik eskuratu ahal izango da Hitza. Dena den, aurrekontua osatzeko arazoren bat ikusten bada, baliteke, aurrera begira, autofinantziazioan gora egiteko, borondatezko laguntza eskatzea.

Beste lau Hitza-k

Bosgarren Hitza izango da Goierrikoa. Tolosaldean 2001eko abenduaren 18an sortu zen. Gaur egun 7.500 ale banatzen ditu. Oarsoaldekoa izan zen sortzen bigarrena: 2003ko ekainaren 24an sortu zen eta 6.000 ale banatzen ditu egunero. Lea-Artibai eta Mutrikuo Hitza 2003ko azaroaren 11n sortu zen, eta 5.300 ale banatzen dira. Urola-Kostakoa da berriena. 2004ko otsailaren 20an. 7.000 ale banatzen dira gaur egun. Goierriko Hitza urrian sortuko da eta 10.000 aleko tirada du helburu.

Itxura eta eduki berriz

Goierritara aldizkaria hamabostero kaleratuko da

Ezeren okerrik ez dela, urriaren 22an Goierritarra aldizkari berritua kaleratuko da. Goierriko Hitza sortzearen aldeko apustua egitearekin batera, Goierritarra aldizkaria bera ere berritzera goaz.

Oraingo GOIERRITARRA aldizkariaren zati handi bat herrietako kronikek betetzen dute, herrietako kronika horiek, egunero, Hitzak kaleratuko ditu. Goierritarrak, erreportaje eta elkarrizketa luzeagoak egiteko aukera emango du. Eguneroko presarekin lanik egin gabe, gaiak sakonago landuz. Ohiko hainbat atal mantendu egingo dira, zahar batzuk berreskuratu eta atal berriak sortu. Hitzaren osagarri izango da GOIERRITARRA aldizkaria, azken batean, elkarlanaren emaitza izango baita. Orain arte bezala, goierritarrei zerbitzua eskaintzen jarraituko du Goierritarrak, euskararen normalizazioa oinarri izanda.

Itxura aldetik ere berritua kaleratuko da GOIERRITARRA aldizkaria. Koloreari tarte handiago emango zaio.

Beharrik bai ote?

Egunero Hitza kalean izanda, GOIERRITARRAren beharrik ba ote den galdetu izan zaigu askotan. Erantzuna, baiezkoa da, jakina. Beste eskualde batzuetako esperientziak ere hori erakusten du. Hitzak lantzen ez dituen beste hainbat eta hainbat gai badaudelako lantzeko, eta beste zenbaitetan, luzeago lantzea merezi duten gaiak ere badaudelako. Laburbilduz: Hitzak egunerokoarekin, freskotasuna eskainiko du, eta GOIERRITARRAK, sakontasuna. Beste era bateko kazetaritza landuko du.



Hitzaren ondoan

Hasiera-hasieratik Hitzaren ondoan egon da GOIERRITARRA aldizkaria. Aurrera begira ere, fisikoki ere, hala egongo da. Izan ere, Hitza eta Goierritarra leku berean egongo dira, Beasainen, Andramendi Ikastolaren lokaletan, Urbialde plazaren azpian, 7. zenbakian, Nacex parean. Beraz, hantxe aurkituko gaituzue, azken 15 urteetan bezala, euskararen normalizazioaren eta informazioaren bidean, lanean. Azken batean, era batera zein bestera, guztion artean egindako produktua baita GOIERRITARRA aldizkaria.

ZUZENKI

A HOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.zuzenki.net

Zunzunegi

Oinetakoak

Hirigoien, 8A
943 087 913
LAZKAO

Bibliaren Astea ari dira ospatzen Beasainen, Eliza Ebanjelikoak antolatuta

'Euskal praise' lehenengo gospel musika diskoa aurkeztuko da

Irailaren 18ra arte, Beasaingo Eliza Ebanjelikokoak Bibliaren Astea murgilduta dabilta. Biblia gerturatu nahi diote beasaindarrei eta goierritarrei. Eliza Ebanjelikoa euskararen aldeko normalizazioan egiten ari den ahaleginaren lekuko, 'Euskal praise' lehenengo gospel musika biltzen duen cd-a ere aurkeztuko dute bihar, irailak 18, Beasaingo Usurbe Antzokian.

Rakel eta Sara Lopez ahizpak Beasaingo Eliza Ebanjelikoko kideak dira. Bibliaren Beasaindarrek, adierazi digutenez, Biblia herritarrengana gerturatzea dute helburu. "Madrildik Bibliari buruzko



Sara eta Rakel Lopez, 'Euskal praise' diskoa eskuan dutela.

erakusketa ekarri dugu. Bibliaren inguruko gaiak azaltzen dira bertan. Euskarara nola itzuli zen ere azaltzen da. Erakusketa horren barruan beste hainbat ekitaldi antolatu ditugu". Udaletxeko Batzar Aretoan dago erakusketa.

Azkeneko hitzaldia, gaur, irailak 17 izango da. 'Bibliaren euskarazko itzulpenaren

historia' gaia landuko dute, Udaletxeko Batzar aretoan, arratsaldeko 7etan.

Euskararen aldeko urratsak

J.M. Iturrioz kalean dago Beasainen Eliza Ebanjelikoa. 30 bat kide daude bertan. Igan-detan, asteartetan eta ostegunetan elkartzen dira elizta-

rrak. Biblia ezagutzeari garrantzia handia ematen diote. Eliza Ebanjelikoaren mezua laburbildu digute. "Jesusek gurekin harreman pertsonal bat izan nahi du, berarekin bizi gaitezela. Jesus hor dago. Berarekin egoteko denbora hartu behar dugu egunero. Maitasunezko Jainkoa da, ez da akats bat egiten dugunean gu seinalatuko gaituena".

Eliza Ebanjelikora euskara pixkanaka sartzen ari da, batez ere barrura begira. Kanpora begira ere bai. Hor dago, irailaren 18an Beasainen egingo duten cd-aren aurkezpena. 'Euskal praise' diskoa kaleratu du Biltokia Cristianak. Gospel musika euskaraz bildu dute. Usurbe Antzokian, eguerdiko 12etan aurkeztuko da. Musikaz gain, beste hainbat ikuskizun ere izango dira. Sarrera dohainik da.

"Jesusen hitzak euskaraz, gospel erritmoan"

'Euskal praise' edo euskal adorazioa. Jesusen hitza, euskaraz, gospel erritmoetan jarri du Biltokia Cristiana Eliza Ebanjelikoak. Euskaraz egin den lehenengo gospel musika da 'Euskal praise'. Jende askoren elkarlanaren emaitza izan da. Tartean izan dira Beasaingo Eliza Ebanjelikoko hainbat kide ere, besteak beste, Sara eta Rakel Lopez.

Iruñatik etorri zitzaizen diskoan parte hartzeko aukera. "Bi misiolari Iruñara etorri ziren Amerikatik, Jane eta Gerardo. Gospel musikarik euskaraz ez zegoela eta, kantak prestatzen hasi ziren. Beasaingo Elizara etorri ziren eta haurrei erakusten aritu gara. Eliza ezberdinetako jendearen artean grabatu dugu Cd".

8 kanta biltzen dira diskoan. Erritmo ezberdinetako kantak, beti ere gossela oinarri dela. Euskal gossela ere moldatu dute, trikitri doinuez lagundurik. Diskoa bereziki ume eta gazteei zuzendua dago. Erritmo bizi eta moderno, biblian oinarritutako hitzak dira zabaltzen dira. "Euskarazko Bibliatik ateratako hitzak dira gehienak. Kantu batzuetan ingelesez ere abesten dugu", argitu dute. Iruñean egin zuten grabazioa.



Nafarroan egin zuten aurkezpena.

Iparramerikako komunitate beltzaren erlijio-kantu mota da gospel musika. Beasaindarrek adierazi digutenez, "Gospel hitzak Ebanjelioa esan nahi du. Jesusi buruz hitz egiten duten abestiak dira", zehaztu dute. "Guztiak ere erritmo alaiak dira, ondo pasatzea baita helburua, Jesusen mezua zabalduz. Cd honen bitartez ikusten da Jainkoa alai dela, Jainkoaren gauzak ez dira aspergarriak, ez dira serioak. Jainkoarekin ondo pasa dezakegu". 8 eurotan eros daiteke, vinonuevo@reteamail.es helbidean.

Irailaren 24, 25 eta 26an ospatuko dituzte auzoko jaiak

Beasaingo Arana kalean auzo elkartea sortu nahian dabilta auzotarrak

Arana kalea eta J.M. Iturrioz kalearen 'Telefonica' parera arteko bizilagunak auzo elkarte batean bateratu nahian dabilta. Inaki Saldaña Ezker Batuko zinegotzia da elkartea sortzeko lanetan dabilzanetako bat. Berak azaldu dizkigu ekimenaren zergatiak.

Zer dela eta sortu nahi duzue auzo elkartea?

Beasainen urbanizatu daitekeen lur-zoru gutxi dago eta gure etxeek 100 urteak gora dituzte, oso egitura zaharkituak dituzte... Gerta liteke eraikitzaileen bat gure etxeak bota eta berriak egitera etortzea, sute edo ezbeharren batek kalteak eragitea edo beste edozein ezusteko izatea. Horrelako zerbait gertatu eta goian zerua eta beheran lurra geratu gabe, elkartuta egoteko beharra ikusten dugu. Indarra izango duen auzo elkartea sortu nahi dugu, aholkularitza juridikoa izan, azken batetan babestuta egon.

Irailan elkartea sortu eta denok elkartuta egon nahi dugu. Auzoan 600-700 biztanle gara eta gure indarra bildu beharra dugu. Horretarako sinadurak biltzen aritu gara eta bere sinadura eman nahi due-

"Indarra izango duen auzo elkartea sortu nahi dugu, aholkularitza juridikoa izan, babestuta egoteko".



Auzoko jaiak

Irailak 24, ostirala:

18:30etan: Danbatekoa, erraldoi eta buruhandiak txistulariekin.

21:00etan: 'Diskotop' disko festa.

Irailak 25, larunbata:

12:00etan: Haurrentzat herri kirola.

na oraindik ere garaiz dabil. Ni Ezker Batuak kale Nagusian duen lokalean egoten naiz eta bertan sinatu daiteke.

Eguneroko bizitzan ere izango dira auzo elkartea sortzeko arrazoiak.

Bai, aurretik aipatutako arrazoi nagusi horiez gain eguneroko bizitzan zerikusia duten hainbat gai konpontzeko beharra ere badugu. Lehen etxetik gerturago genituen zabor

18:00etan: Top euskarakea.

23:00etan: 'Los Veracruz' laukotearen emanaldia.

Irailak 26, igandea:

12:00etan: Xurdi ipotxen munduan.

12:30etan: Trikipoteo, Koldo Iparragirre trikitixa eskolako ikasleak alaituta.

16:00etan: Haurrentzako puzgarriak eta kars-ak.

edukiontziaik eta orain zubiraino eraman dituzte. Beste hainbat herritan egiten den bezala lurpeko edukiontziaik jartzea eskatzen dugu. Bestetik, Arana kalean etxebizitza zaharrak eta merkeak direnez ghetto bat ari da sortzen. Elkarbizitzako gutxienezko arauak betetzen ez dituzten hainbat bizilagun daude eta liskarrak ugaltzen ari dira.

Adinekoek nola hartu dute elkar-tearen sorrera?

Bileretara gehiena adineko jendea azaldu da. Horrek atentzioa deitu zidan. Bizi guztia bertan bizi izan dira eta beraien etorkizuna garbi ez ikusteak ezinegon sortzen

die. Gazteei baino gehiago kostatzen zaie etxez aldatu beharrari aurre egitea eta beldurra dute.

Taberna gunean dago auzoa, horrek eragozpenik sortzen al dize?

Kexa asko dago asteburuetan gertatzen dena dela eta. Batez ere igande goizetan izaten den zikinkeria eta usain txarrak direla-eta gogaituta gauda auzoko bizilagunak. Herri-tarren aldetik eskaera egon da eta orain hasi dira igande goizetan garbitzen baina ez da nahikoa. Adibidez, atarietako kristalak hausten dira eta azkenean beti bizilagunen artean ordaindu beharra izaten dugu. Horrelako arazoei aurre egiteko beharrezkoa ikusten dugu auzo elkartea izatea.

Nolakoa izan da Arana kalea?

Arana kalea beti langileen kalea izan da, nortasun handikoa eta oso elkartuta egon den auzoa. Baina, aspaldian elkartasun hori galtzen joan da. Hori berreskuratzea dugu helburu.

Arana kaleko jaien prestakizuna zuen esku al dago?

Garai batean oso jai herrikoiak ziren, baina hori galdu-ta dago. Orain auzoko tabernariak antolatzen dituzte eta gu auzotarren partehartzea indartu nahian gabilta. Horretarako lanean hasi gara eta aurtengo jaiak tabernari eta auzotarren artean antolatu ditugu. Denborarekin jaiak tarragoak egiten joateko, jaiak deak nahi duena egitarauan izateko, helburuarekin ari gara lanean.

EHNE sindikatuaren aldarrikapena Ordiziako azoka berezian **“Hitz egiten hasi eta sektorearekiko apustu fuerteago bat egitea eskatzen dugu”**

Irailaren 8ko azoka berezian, gazta lehiaketako irabazleen izenak entzuteko zain geundenean, zintzarri hotsez lagunduta, EHNE sindikatuko hainbat kide igo ziren pilotalekuko oholtzara. ‘Agintariok entzun, nekazarion beharrei erantzun’ leloa idatzirik zuen pankarta azaldu eta Eneko Karrera, EHNE sindikatuko Gipuzkoako idazkariak hitz egin zuen.

Euskal Jaien ehungarren urteurreneko azoka berezia aprobetxatu nahi izan zuen EHNE sindikatuak nekazarien aldarrikapena zabaltzeko. “Produktuak prestatzeko urtean zehar eta urteetan zehar lan asko egin behar izaten du baserritarrak. Baina momentu honetan ez dugu ikusten, baserritarrei dago-kion jarrerarik. Eta horrelako egunak, jaiegunak beraiei irudia zuritzeko erabiltzen dituzte. Benetan baserritarrek in bildu behar direnean, ez daukate borondaterik baserritarrek in biltzeko”, dio Eneko Karrerak.

Nekazaritza sektorea oso egoera larrian dagoela nabarmendu nahi izan zuten. Euskal Jaiei mendeurrenari erreferentzia eginez, “duela 100 urte gehienak baserritarrak ziren eta gaur egun gutxi batzuk. Azken 20 urteotan nekazaritzaren %80k nekazaritzari utzi dio. Egoera oso-oso larria da. Azken batean, Gipuzkoan, baserriak bakarrik



“Baserritarrok egiten dugun lanaren errekonozimendua eskatzen diogu Administrazioari”

bizi direnak ez dira milara iristen da, horrek esan nahi duena, ez bada benetako apustu bat egiten gero eta gutxiago izango gara eta”.

Baserritarren lana errekonozitzea eskatzen du EHNEk, “kontutan izanik nekazariok gestionatzen dugula herrialdearen %80a, benetan apustu indartsuagoa egin beharko litzateke baserritarrekiko. Baserritarrek beste lan sozial bat ere egiten du, zeharka beste funtzio batzuk baditu eta horiek ere errekonozitu egin beharko litzazkioke. Azkenean, Gipuzkoa eta Goierri hain politikak badira, nekazariak lurra lantzen duelako da, larreak eta basoak txukun zaintzen dituelako. Hemen ikusten duguna, hemen nekazaritzarik ez bada bultzatzen, hau dena pikutara joan litekeela”.

Sektorearekin hitz egin

Mahaiaren bueltan eseri eta hitz egiteko deia luzatu zuen EHNEk Ordizian. “Momentu honetan ez dago inolako interlokuziorik administrazio ezberdinen aldetik eta guk ezin dugu hori onartu. Beraien kabuz ari dira politika bat diseinatzen, bai Foru Aldundi, bai Eusko Jaurlaritza eta baita ere kasu honetan, Enirio-Aralar Mankomunitatea. Baserritarrak egiten duen lanaren errekonozimendua eskatzen diogu Administrazioari eta horretarako lehenengo pausoa litzateke, sektorearekin hitz egiten hasia eta benetan sektorearekiko apustu fuerteago bat egitea. Momentu honetan udazkenean datorren urteko aurrekontuak lantzen hasiko dira eta momentu ona litzateke paperak mahai gainean jarri eta diseinu bat egiten haste-

ko”, gaineratu du Karrerak.

Mobilizazioetan jarraitzeko asmoa dauka EHNEk, Administrazioaren aldetik aldatetarik ez badago. “Guri gustatuko litzazkioke irailaren 8a iragana eta etorkizunaren arteko tarteko egun bat izatea, eta hemendik aurrera benetan lanean hastea. Eta guri gustatuko litzazkioke horrelako egunetan denok iritzi berdinarekin azaltzea, baina zorritzarrez ikuspuntu ezberdina daukagu, sektoretik bizi gare-nok egoera larritasunez ikusten dugu. Administrazioetik baserritarren lana errekonozitzeko borondaterik ez dagoela ikusten dugu”.

Enirio-Aralar mankomunitatea

EHNEren salaketa lekutatat Ordizia aukeratu izana ez da kasualitatea Karreraren esanetan. “Gazta izaten da azoka honetako nagusia eta Gipuzkoako artzain gunerik nagusia, Aralarren dago. Enirio-Aralar Mankomunitatea, Ordiziako alkatea buru dela, hartuak dituen jarrerak oso-oso larriak dira. Alde batetik, sektorearekin eta hor zegoen elkartarekin ez kontatzea. Beste alde batetik, Aralarren egin behar ziren hainbat hobekuntzetarako materialak eman eta eramateko garaian erakutsiz nola egiten dituzten beraiei gauzak, eta gero material horiek bertan alperrik galtzen utzi eta artzaina aldi, txabolak egiteko eta lan baldintza oso kaskarretan. Gure diruarekin egiten ari direna salatu nahi izan genuen,”.

Kutixi: Aurrez prestatutako jakiak Lazkaon

Kutixi
Etxeko Sukaldaritza

Pili Sukia eta Arantxa Armen-
dariz zaldibiarrek, Lazkao au-
keratu dute Kutixi denda ireki-
tzeko. Elozegi kaleko 52. zen-
bakian (fraileen aurrealdean,
Oiarbidek, harategia zuen le-
kuan), urriaren 1ean inaugura-
tuko dute denda. Kutixiko kuti-
xien berri eman digute zaldi-
biarrek.

Aurrez prestatutako jakiak

Batere lanik egin beharrik ga-
be, goxo-goxo jateko aukera
emango digu Kutixik. Zer nahi,
hura erosi.

Enkarguz

Aurrez enkargatuta, nahi adina
lagunentzako menuak ere
prestatuko dituzte. Elkarrete-
rako, ospakizunetarako...

Paellak ere, enkarguz pres-
tatuko dituzte.

Eguneko menua

Hiru plateraz osatutako egune-
ko menua ere, postrea barne,
etxera eramateko prest izango
dute Kutixin, prezio egokian.
Adineko jendearengan pentsa-
tuta jarriko duten zerbitzua da.



Odolkiak, mondejuak, txorixoak

Menu ezberdinez gain, odol-
kiak, mondejuak eta txorixoak
ere bertan egingo dituzte Pili
eta Arantxak. Hasi behintzat,
ondo hasi dira. Ordiziako odol-
ki txapelketan, 4. postuan gel-
ditu ziren Kutixiko odolkiak.

Delicatessen

Dendaren beste txoko bat, ku-
tixientzat gordeko dute. Deli-
catessen produktuak ere sal-
duko dituzte bertan, baita txar-
kuteria ere.

Ogia, esnea eta egunkaria
ere salduko dituzte.

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera,
10:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 20:00etara. Larun-
batetan, 10:00etatik 14:30era.

San Migel

Lazkaoko Sanmigeletan izaten
den afarirako, enkarguak har-
tuko dituzte. Lanik egin beha-
rrik gabe, festaz gozatu nahi
baduzu, Kutixira gerturatu bes-
terik ez duzu.

Elozegi kalea, 52

943 88 17 17

LAZKAO

Euskal Herriko hegaztien 3. eguna, Seguran, irailaren 26an

Munduko txori ezberdinak ikusteko aukera izango da aurten

Aurten ia hirugarren eguna du Segurako Euskal Herriko Hegazti Azokak. Segurako zenbait herritarrek eta elkartek Udalarekin batera antolatzen duen eguna irailaren 26koa. Berrikuntza bat izango da aurten: munduko leku ezberdinetako txoriak ikusteko aukera izango Seguran.

Aurtengo berezitasunen artean munduko txori ezberdinen erakusketa izango da. Segurako plazan ikusgai egongo dira, Europa, Asia, Afrika Iparraldea, Ozeania, Amerika eta Afrikako txoriak. Perikito, papagaitxo turkesa, uso diamantekara, karnaba, txirriskila arrunta, txorru arrunta, kanarioak... txori hauek merkatuan balioa handia dute. Guretik gertuen J.M. Silbaren haztegiak ditugu.

Urtero bezala Euskal Oiloak bere txokoa du: beltza, zilarra, gorria, leposoila eta maraduna. Emuak, oilo ekologikoak, ahateak, antzarrak eta faisanak ere egongo dira.



Segurara doazenek, erosketak egiteko aukera izango dute besteak beste, ahate eta ostruka produktuak, arraultza ekologikoak, eta Segurako Produktuak.

Solasaldi gastronomikoa

Irailaren 23an arratsaldeko 19.00etan Elorri Elkartearen Segurako sukaldariak hegaztien plater ezberdinak prestatuko dituzte. Ondoren plater hauek dastatuko dira.

Herritarren hegaztiak

Hamar bat herritarrek beraien hegaztiak ekarriko dituzte urtero bezala.

Zozketa ibiltaria

Otarra ibiliko da hegazti egunean Seguran zeha, txartelak saltzen. Otarra Segurako Produktuek eta hegazti produktuez osaturik egongo da. An-

Egitaraua

Goizeko 10,30ak aldean irekiko da azoka eta hainbat ekintza izango da:

10:30ean: Txistulariak eta trikitilariak herrian zehar

10..0etatik aurrera:

- Euskal oiloaren erakusketa.
- Emuak, faisai, ahate eta beste hegaztien erakusketa.
- Oilo eta hegaztien produktuak ikusgai eta salgai.
- Munduko txori ezberdinen erakusketa.

tolatzaileen esanetan, otarra gastuei aurre egiteko beharrezkoa da.



Lurrain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legerreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

121 ikasle eskolan

Irailaren 8an hasi zuten ikasturtea 2tik 12 urte arteko neska-mutikoei, iaz baino 7 ikasle gehiagok. Horietatik 100 herritarrek dira, 14 mutiloak eta 7 zeraindarrak. Eskolan lehen aldiz hasi direnak 5 dira. Beheko eskolan, haur hezkuntzako 36 ume dabilta eta goikoan lehen hezkuntzako 85. Irakasle lanetan 13 lagun ari dira. Jangelarako 42 ikasle daude izena eman da. Irailaren 27tik aurrera arratsalde ere arituko dira.

Aitzol eta Felix Ama Dablem-era



Ezkio-Itsasoko Koke Lasa eta Legazpiko Kepa Urmenetarekin batera, Aitzol Telleria eta Felix Goiburu herritarrek irailaren 29an dira irtetzekoak hilabete baterako. Euren asmoa Nepalgo Ama Dablam (6.812 metro) gailurrera igotzea da. Mendi sakratu hau, Nepalgo Kungu bailaran dago, bertan daude besteak beste, Everest, Cho-Oyu eta Lothse.

Joseba Telleria

'Izartu'tik gasa sartzeko dirulaguntza

Hirigune desfaborezituak zuzpertsu eta eraberritzeko programaren barne, Eusko Jaurlaritzak antolatutako 'Izartu'ren 2. ediziotik 1.736.925 euro jaso ditu Segurak, udal honek inoiz jaso duen dirulaguntzarik handiena. Laguntzak eskuratzeko biztanleriaren garapena, hezkuntza maila, lan egoera, azpiegiturak eta barne produktu gordina hartu izan dituzte kontutan. Irizpide horien barne Segura ere bazezgoelakoan, udalak, aurreko legegintzaldietako plan espezialean nahiz azken legegintzaldiko gasa herriratzearen proiektuan oinarrituz, kasiko barruan gauzatu ahal izateko 12 jarduketa aurkeztu zituen programa horretara Prospektiker enpresaren bitartez. Hauen guztien kostea 7.550.000 eurokoa zen.

Segurak bezala, Erkidego Autonomoko 124 herriekin egin zituzten eskariak otsailean. Ebaz-

pena uztailaren 21ean eman zen jakitera. 68 herriek jaso zuten laguntza. Bost urteko epeetan kobratu eta 2008a baino lehenago erabili beharko da diru hori.

Gasak du lehentasuna

Aurkeztutako 12 jarduketa horietatik gasa herri barruan sartzeko du lehentasuna udalarentzat. Horretarako proiektua oso aurreratua dago aurreko legegintzalditik. Orain lortu dena hori gauzatzeko dirua da. Gas biltegia hilerri ondoan jarrita, errebaletatik gora bideratuko litzateke, bi zerkaldeetatik, erdiko kaletik eta karkabatik kaskoko etxebizitzetara banatzeko. Proiektu honek, orain bi urte 1.400.000 euro inguruko aurrekontua zuen. Beraz, dirulaguntza horrekin gasaren hiriguneko proiektua es-tali egingo litzateke.

Txistu ikasturtea

Joxemari Telleriak zuzendutako solfeo, txistu, danbolin eta danbor ikastaroak urrian hasiko dira. Horretarako hila-ren leian bilduko dira kultur etxeko txistu gelan interesatu guztiak, iluntzeko 7etan.

Ehiz postu ordainduenak

Irailaren 12an, partzoneriko 48 postu subastatu ziren udal-letxean. Ehiztariek 186.055 euro utzi zituzten, iaz baino 30.000 gehiago. Hamar ordainduenak: 1. Apota 10: 12.585 euro, 2. Agiñaran 0: 9.001, 3. Apota 12: 8.700, 4. Iturgain 5: 8.200, 5. Agiñaran 4: 8.105, 6. Larrebil 19: 7.380, 7. Larrebil 1: 7.111, 8. Larrebil 5: 6.900, 9. Agiñaran

2: 6.705 eta 10. Apota 8: 6.000. Subastatik kanpo Segurari tokatu zitzaizkion 12 postuak atzo banatu ziren 140 ehiztari herritarren artean.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Jubenilak: Segura 4-1 Urki.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Urola, zapa-tuan 11:00etan. **Errejonak:** Segura-Soraluze, zapa-tuan 16:30etan.

Bazkide kanpaina:

Kontu korranteetatik hilaren 20tik aurrera egingo dira kobraketak.

Mahaia plazan. Eskura ordaindu edo bazkide berri egin ahal izateko. Bestela, futbol zelaiko tabernan.

Labur-labur

● **Usakume tiraketa.** Irailaren 5ean Txoritegi elkarteak antolatutako proban 191 ehiztarik parte hartu zuten. Xabier Zugasti errezildarrak irabazi zuen. Herriko eta elkarteko lehena Xabier Alustiza izan zen. Aurreneko emakumezkoa Arantxa Muñoa herritarra.

● **Soinketa.** Iluntzeko taldea pasa den astean hasi zen. Goizekoa (astearte eta ostegunetan, 9:30-10:30) eta jubilatuen (astearte eta ostegunetan, 15:30-16:30) urriaren 5ean hasiko da, Baratze pelotalekuan.

● **Plaza zaharra.** Antonkalene aurreko gunea berritzeko 9.000 euroko aurrekontua dago. Arbola mantenduz eta zabor ontzia, eserlekuak eta lorontziak kenduz, eserleku eta babes funtzioa

izango duten mailak eraikiko dira gunearen bueltan. Itturria eta pareta egokitu eta zorua berritzeko kale Nagusitik atera berri diren garai bateko galtzadarriak erabiliko dira.

● **Haurtzaindegia.** Irailaren 15ean 0-2 urteko 3 haur hasi ziren beheko eskolan egokitu den gelan.

● **Europako mugikortasun iraunkorra.** Bizi kalitatea handitu asmoz, kotxearen gehiegizko erabilpenaz herritarrek kontzientziazteko irailaren 16tik 22ra, panel informatiboak jartzeaz gain autobus zerbitzuak doan izango dira.

● **Jubilatuaren egunpasa.** Irailaren 21ean, goizeko 8,30etan Jermanenetik irteza, Zumaian hamarretakoa, Zarautzen eguerdi artea, Orion bazkaria (Ardora jatetxea) eta Donostian arratsaldepa.

● **III. hegazti eguna.** Irailaren 26an. Informazioa ondoko orrian.



Esparruko erromeria, irailaren 19an

San Migel jaien atariko gisa, Esparruko erromeria izango da irailaren 19an. Ikurrinaren jasoerarekin batera hasiko da festa eta tartean izango dira ohiko haur jolasak, trikitilariak, dantza saioak, bazkari herrikoia eta abar. Arratsaldeko 6ak aldean ikurrina jaitsi eta herrira itzuliko dira parte hartzaileak, trikitriaren doinuaz lagundurik.

Argazki erakusketa, Antsoategin

Esparruko jaiari errepasoa egiten dion argazki erakusketatik ikusgai dago Antsoategi tabernan.

San Migel

Informazio hau idazterakoan, San Migeletako egitaraua aire samarrean zegoen oraindik. Dena den, hainbat ekitaldi



Ikasturte hasiera berezia

San Benito Ikastolan ikasturte hasiera berezia izan dute, eraikin berriko lanak atzeratu egin direnez. Armando Velez, Ikastolako zuzendariak, 10. orrian azaldu dizkigu atzerapenaren zergatiak, eta egoera berrira nola moldatu diren.

aurreratzeko moduan gara.

Dantzari Txiki eguna, irailaren 26an izango da, Oin Arin dantza taldeak antolatuta. Inguruko herrietako dantza taldeak etorriko dira.

Egun honetan bertan, Ordiziatik abiatuta, Beasaindik barrena, Josetxo Imaz Memorialeko korrikalariak herritik pasatuko dira.

Jubilatuaren egunak ere data zehatza dauka: irailak 29a, San Migel eguna. Meza entzun ondoren, mahaiairen bueltan elkartuko dira herriko edadetuenak.

Egun berean, irailaren 29an, haurrentzako parkea jarriko dute plazan. Arratsaldeko 6etan, benjamin, alebin eta infantil mailako pilota partidua jokatuko dira Iluntzeko 9ak aldean, herri afarian elkartuko dira lazkaotarrak, herriko pilotalekuan. Eguna azkenik, Drindots taldearen emanaldiarekin amaituko da.


Sagardo dastaketak oraindik ez dauka data zehatzik, dena den, ziurrenik, ostiralean, irailaren 24an iango da. Egun berean, areto futboleko partidua jokatu da 19:30ean.

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22an Nazioarte mailan, Autorik gabeko eguna ospatuko da eta Udalak ere bat egin du aldarrikapen honekin. Irailaren 22an bi ekimen burutuko dira herrian: batetik, bidegorrian zehar ibilaldiak eta bestetik, gurgildun aulkietan ibilaldiak. Irailaren 16tik 22ra bitartean, Goierrialde autobusak dohainik izango dira.

Urko Irastortza

Baltasar Garzon epaileak deituta, irailaren 2an Auzitegi Nazionalean deklaratu zuen Urko Irastortzak, Udalbiltzaren auzian, inputatu gisa. Inongo baldintzarik gabe, kalean gelditu zen lazkaotarra.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Urriaren 1etik aurrera eguneko zentroa zabalik

Olaran auzoan dagoen Egune-ko zentroak, urriaren 1ean irekiko ditu bere ateak. Ekitaldi honetan, Gizarte Politikarako Departamentuko Foru Diputatua den Esther Larrañaga Agirre, izango da.

Hurrengo hilabete hasieran martxan jarriko den, zerbitzu berri hau ez da erresistentzia bat, erabiltzaileak egunero 18:00ak aldera etxera itzultzen direlako. Astelehenetik ostiralera, arreta berezia eskaintzen zaie Egune-ko Zentrori hurbiltzen direnei. Etxean bizitzen jarraitzen duen jende helduaren artean, badira egunean zehar laguntza premia handia dutenak. Horientzat leku aproposa da zabalduko den Egune-ko Zentroa, laguntza pertsonala (jana, higieena...), psikologikoa eta emozionala ziurtatuta dagoelako. Aldi berean, jangela soziala eta arropa garbiketa zerbitzua ere emango da, zentroan bertan.

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9,30etan hasi eta arratsaldeko 5,30ak arte zerbitzu ezberdinetaz gozatzeko aukera dago: erreabilitazio fisiko, psikiko eta soziala, asis-

tentzia soziala eta sanitarioa... eta, nola ez, bertako langileen laguntza eta babes.

Egune-ko Zentroarekin denek irabazten dute: laguntza premian dagoen pertsonak eta pertsona horren sendiak. Helduek, egunean zehar tratua profesionala jaso ostean, iluntzean etxera bueltatzen dira, senideei, egunean zehar lanean edo bestelako beharretan aritzeko aukera emanez..

Izena eman nahi duenak, lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuetara jo beharko du (edo 943 801115 telefono zenbakira deitu). Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia-ren laguntza jasotzen du Zentroak, baina erabiltzaileak ere kuota bat ordaindu behar du.

Egune-ko Zentroaren kudeaketa (baita Etxez Etxeko zerbitzua ere) GSR enpresaren esku geratu da. Horrelako zerbitzuak zuzentzen esperientzia handia duena. Edo-nork beraiekin harremanetan jarri nahi balu 943712164 telefonoan egin dezake.

Edurne Albizu



Gimnasia ikastaroa

Urriaren 5ean, jubilatuen eta pentsiodunen gimnasia ikastaroa hasiko da. Ekintza hau Olarango Gizarte Zentroan burutuko da, astearte eta ostegunetan, 10:30etatik 11:30etara. Izena eman nahi duenak Udaletxean egin beharko du, urriaren 5a baino lehen. Prezioa honakoa da: Herriaren erroldatuak: 12 euro, Herriaren erroldatu gabek: 42 euro, Pentsiodunak: 21euro.

Jubilatuaren bidaia

Irailaren 23an jubilatuek Iparraldera bidaiatzeko aukera izango dute. Irteera, goizeko 9etan izango da Kooperatiba aurretik eta bazkaria Almandozgo, Beola jatetxean egingo dute. Izenematea, irailaren 16 eta 17an egin ahal izango dute, 17:00etatik 19:00etara, Olarango Jubilatuen Elkartearen, 20 euroren truke.

Bentako obrak

Benta baserri ondoan, GI-2637 errepideko 6,515 kilometro puntuan, dagoen errepide hondoratzea konpontzeko lanak, pasatako egunetan bukatutzat eman dituzte. Azken urtetan, okertzeraz egin duen errepide zati honek, eta honekin batera Zegamarako sarrerak, itxura ona du, lan hauen ondoren.

Yoga hitzaldia

Irailaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, Olarango Gizarte Zentroan, yogaren inguruko hitzaldia izango da, 'Osasuna eta garapen pertsonala' izenburupean. Gaztelaz izango da eta yoga irakasleak diren, M^a Angeles Aranguren eta Jose Felix Sandoz, izango dira hizlariak.

Ehiza postuak

Irailaren 12an Segurako Udaletxean, ehiza postuen pliegoak ireki egin ziren. Bertan, garestien irten diren ehiza postuak ondokoak dira: Apota-10, 12.585 euro; Agiñaran, 9.001 euro; Apota 12, 8.700 euro; Iturgain-5, 8.200 euro; Agiñaran-4, 8.105 euro; Larrebil-19, 7.380 euro.

Kilometroak eta Nafarroa Oinezera autobusa

Kultura batzordeak, urriaren 3an Orio eta Zarautzen ospatuko den Kilometroakera eta urriaren 17an Lizarran izango den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du. Izenematea, Udaletxean edota Liburutegian egin ahal izango dute, irailaren 23a bitartean zegamarrek eta tokia geratuz gero, kanpokoek irailaren 24 eta 30 bitartean. Prezioa, egun bakoitzeko 5 eurokoa izango da.

Sahalky 07 garaile

Abuztuaren 21ean, jokaturako XXVII. Zegamako Futbito Txapelketaren finalean, Sahalky 07 eta Tripi aritu ziren. Txapelketa, maiztaren 8an hasi zen, 6 talderekin; Sahalky 07, Tripi, Tauriton, Haizea, Pott eta Libergol. Uztailaren 24an jokaturako finalerdietan argitu zen finala Sahalky 07k eta Tripik jokatu behar zutela. Herriaren artean jokatzeko den txapelketa honetan, bestelako saria ematen dira, aurtengoan finaleko jokalariei onenaren saria, Urko Gomezek jaso zuen eta atezain onenaren saria Jon Arakamarentzat izan zen.

Azaroan erre zen

Urtsu-haundi baserriaren aldeko asteburua

Hainbat herritar elkartu eta azaroan erre zen Urtsu-haundi baserriaren alde dirua biltzeko ekitaldi sortu antolatu da irailaren 24tik 26ra. Batzuk antolatzen, beste batzuk ekitaldietan parte hartzen, beste batzuk sariak ematen...

Herritarrez gain, kanpoko hainbat pertsonak ere bat egin nahi izan dute helburuarekin. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariekin batera, Benito Lertxundi ere izango da Zaldibian. Disko berri-rako kantuak grabatuko ditu. Benito Lertxundi dena den, ez da oriotar bakarra izango. Aurretik, sardinak erreko ditu Orioko talde batek.

Jarraian duzue egitarau zehatza:

Irailak 24, ostirala:

19:00etan: Merienda-afaria, txistorra eta solomoarekin.



Bi familia bizi dira Urtsu-haundin eta Etxabetarren etxea erre zen azaroaren 21ean.

Ondoren: Xapre, Furriela, Makalo eta Jexuxen jazpanarekin erromeria.

22:30ean: Jaialdi herrikoia. Aurkezleak: Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Abeslariak eta artistak: Abalortz, Arantxa, Aloña, Takolo pailazoa eta umeak, Amaia, Patxin

pailazoa, Xeto eta Daniel, Mari Axun, eta abar.

Irailak 25, larunbata:

17:00etan: Toka txapelketa.

18:00etan: Herri kirolak: herritarren arteko proba ezberdinak: behiak jetzi, harrijasotzaileak, trontzalariak, korri-

kalariak, txingak, bizikleta, eta abar.

19:00etan: Goiztiri txaranga.

20:00etan: Orioko sardina errekin, merienda-afaria.

22:30ean: Benito Lertxundiren kontzertua, pilotalekuan. Sarrerak herriko tabernetan salgai.

Irailak 24, ostirala:

11:00etan: Txistularien kalejira.

12:00etan: Bertso saioa: Al-tzo-txiki eta Patxi Iraola.

12:30ean: Pilota partidak.

13:00etan: Ainhoa eta Unai trikitilariak, kalez kale.

13:00etan: Umeen marrazkiak eta jolasak.

14:00etan: Herritarrek emandako 50 sarien zozketaren emaitzak.

Jubilatuen eguna, irailaren 26an

Herriko edadetuenek irailaren 26an ospatuko dute euren eguna. Bazkarirako txartelak Beti Gazte elkartearen erosteko aukera dago, irailaren 10etik 22ra arte, eguerditan eta ilunabarretan.

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22an ospatuko da Autorik gabeko eguna. Gorpildun aulkietan herrian zehar ibilaldiak egiteko aukera izango da.

Soinketa ikastaroak

2004-2005 ikasturtea hasiera doa eta izena emateko epea irekita dago. Irailaren 30a baino lehen, Kutur etxean (943160338 telefono zenbakia) eman behar da izena. Aerobika, mantenimendua eta hirugarren adineko mantenimendua ikastaroak antolatu dira. Urriaren 18an hasiko dira ikasturtea.

Kontuan izan, izena ematen duenak, ikasturte osorako konpromisoa hartzen duela. Taldekide kopuruak txikiak badira ez da talderik sortuko.

KORO
FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

AMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

Herriko festak asteburuan

Irailak 17, ostirala:

16:30etan: Zinta karrera.

18:00etan: Txupinazoa.

19:30etan: Futbol derbia Itsasondo eta Aramako futbito taldeen artean.

21:30etan: Herri Afaria: Txekorra burruntzian erreko da herriko enparantzan.

Ondoren, Irats taldeak alaituriko gau-pasa izango da.

Irailak 18, larunbata:

9:00etan: Trikitilarien goiz erezia.



11:30etan: Hamaiketako izango da Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi bertsolari gazteek alaiturik.

16:00etan: Haurrentzako Beitiko igoera.

18:00etan: Koadrilen arteko III. Herri Jolasak.

22:00etan: Disko Festa, DJ Bela-ren eskutik.

Tartean, Mozorro gaueko sari banaketa.

Irailak 19, igandea:

9:00etan: Txistularen goiz erezia.



Larunbateko hamaiketakoan Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi bertsolariak arituko dira.

Odol ematea

Irailaren 29an, asteazkena, arratsaldeko 7etatik 9etara, aurtengo bigarren odol ematea izango da. Ateratzeak Gimnasioan izango dira. Betiko odol emalei beraien eskuzabaltasuna eskertzeaz bat odol emaile berriak animatu nahiko lituzke Odol emaile elkarteak.

11:00etan: Altzagaratera txirindulari igoeraren hasiera.

11:00etatik 14:00etara: Haur parkea izango da dohainik.

Aldi berean 'Bateo Tunelean' probatzeko aukera izango da.

12:00etan: Igoeraren amaiera.

13:00etan: Sukaldaritza txapelketa: Paella lehiaketa izango da herriko plazan.

15:00etatik 17:00etara: haur parkea eta 'bateo tunela' izango dira.

18:00etan: Herri kirol erakustaldia. Koxe Bikondoak altueran enbor bat moztuko du buruz behera dagoela. Motozerrarekin korteak emango ditu altuera ezberdinetan eta motozerraz lagundurik hainbat egurrezko figura egingo ditu.



Ondoren sagardo dastaketa izango da Gauxoriak taldearen musikaz lagundurik.

Jaiak amaitzeko azken traka izango da.

Argazki erakusketa

Festetako argazki erakusketa izango da irailaren 17tik 19ra bitartean Udaletxeko Batzar Aretoan.

Kultur astea

Udara amaitzen ari den honetan eta ikasturte berria martxan jarri delarik Araman ere abiatzen jarriak dira eta honeira irailaren amaierako aste kulturala prestatua dago.

Hasiera, **irailaren 22an** emango diogu: arratsaldeko 7etan "Iñaxitoren ametsak" antzezlan izango dugu herriko pilotalekuan.

Irailaren 23an, Nairobira-

rra- "Milioi bat kilometro lur arras" izeneko ikus-entzunezkoa izango da Josu Iztueta eta Ander Izagirreren eskutik. Kultur etxean izango da arratsaldeko 8etan.

Irailaren 24an 'Popi eta Zaratrako' pailazoak izango dira arratsaldeko 7etan Aramako Pilotalekuan.

Irailaren 24tik 27ra bitartean: 'Sahara mendebal-



dea, Saharar herriaren lurraldea' izeneko argazki erakusketa izango da. Erakusketa

hau Euskal Fondoaren eskutik helduko da Aramara.

San Migel jaiak prest

Irailak 24, ostirala:

12:00etan: Hasiera suziriekin.

18:00etan: Haur jolasak.

20:00etatik 22:30ak arte: Sagardo dastaketa norberak ekarritako janariarekin.

Ondoren trikitixa Elortza Anaiak taldearekin.

Irailak 25, larunbata:

17:00etan: Takolo. Pirritx eta Porrotx pailazoak.

18:30ean: Mondeju eta ardoa neurrian.

22:30ean: Idi proba: Izeta Aiakoa, Iker eta Axier Zubillaga 'Igeldo'-ren aurka.

Ondoren erromeria goizalde-
ra arte Ansorregi eta Larraña-
garekin.

Irailak 26, igandea:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Jubilatuentzat ha-
maiketakoa.

KZ gunean ikastaroak

Uztailaren 20az geroztik, martxan da KZ gunea, liburute-
gian. Irailean, goizeko 9etatik ordu batera dago irekita. In-
terneten nabigatzen ikasteko aukera ematen du KZ guneak.
Ikastaroak dohainik izango dira eta udaletxean eman behar
da izena. Ikastaroa arratsaldean egin nahi duenak ere izena
eman dezala, taldeak egiten joateko. Informazio gehiago KZ
gunean bertan jasoko duzue.

12:00etan: XXI. Txirrindula-
ri igoera Elortza anaiak triki-
tilariekin alaiturik.

16:00etan: Artzain txakur
lehiaketa.

Ondoren: Urdaneta dantza-
taldea.

Ondoren: Erromeria Elortza
Anaiak trikitilariekin.

Irailak 29, asteazkena: San Miel eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

14:00etan: Herri bazkaria,
Zabale eta Larrañaga, eta Jon
Lopategi eta Angel Larrañaga
bertsolariekin.

18:00etan: Toka txapelketa
herritarrentzat.

Ondoren, trikitixa, Zabale
eta Larrañagarekin.



Artzain txakur lehiaketa

Irailaren 26an, arratsaldeko 4etan jokatu da artzain txakur
lehiaketa. Herriko Jose Antonio Ormazabal Mendi eta Lagun
txakurrekin lehiatu da. Arerioak honakoak izango ditu: Az-
peitiko Inazio Etxeberría, Argi txakurrarekin; Donostiako Ja-
bier Olaziregi, Nai txakurrarekin; Galdakaoko Bittor Bengoe-
txea, Luki txakurrarekin; Andagoiako Karlos Pinedo, Xurter
txakurrarekin; eta Areatzako Joseba Bizkarguenaga, Lagun tx-
akurrarekin.

mazda
Bikar, S. A.

Mazda2



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarroi!

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean



Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

Ursuarango festak iraileko azkeneko asteburuan

San Migel eguna asteazkena tokatzen da aurten eta ursuarandarrek aurreko asteburuan (irailaren 24koan) ospatuko dituzte sanmigelak. Udazkenaren hasiera, eta idiazabaldar askorentzat, urteko lehen mondejuak dastatzeko aukera esan nahi dute Ursuarango jaiek. Hau da egun horietarako antolatu duten egitaraua.

Irailak 24, ositala:

19:00etan: Jaien hasiera suziri eta kanpaiekin.

Ondoren: Afariak. Mondejua, gixadua eta ardi txuletak.

22:30ean: XI. 'Mus azkarra' lehiaketa.

Irailak 25, larunbata:

12:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Txistulariekin hasita, Agirre eta Lazkano bertsolariak, Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

17:00etan: XIII. Toka lehiaketa.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.



Iluntzean: Afariak eta jaurraian trikitixa goizaldera arte.

Irailak 26, igandea

11:00etan: Meza nagusia

12:30etan: Egurra erabiliz irudiak egingo dituzte.

14:00etan: Herri bazkaria, Mendizabal eta Zeberio bertsolarekin eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilarekin.

17:00etan: Joko tradizionalak trofeo eta opariekin ume eta helduentzako txokolata-darekin amaituz.

Xabier urteaga

Jubilatuen eguna

Jubilatuen eguneko bazkarian parte hartu nahi duten herritarrek, ondorengo egun eta orduetan eman behar dute izena Jubilatuen Elkarteko egoitzan: irailak 23 eta 30 (osteguna) arratsaldeko 7,30etatik aurrera; irailak 25 eta urriak 2 (larunbata) arratsaldeko 6etatik aurrera eta irailak 26 eta urriak 3 (igandea) meza ondoren.

Izena ematerakoan 6 euro ordaindu behar dira. Jubilatuen eguna urriaren 10ean ospatuko da.



Inaugurazioa

Irailaren 10ean inauguratu zuten Artzai Gaztaren lokal berria. Ekitaldian, Jaurlaritzako, Gipuzkoako Diputazioko eta herriko agintariek parte hartu zuten. Baita elkarteko ardura-dunek eta artzainek ere.



Espaloi berria

Hasi dira Donatonetik behera espaloi berria egiteko obrak. Beasain alderako bidean, ezkerreko aldean egingo dute espaloia. Lanak bukatutakoan, Idiazabal eta Beasain arteko bidea espaloitik egiteko modua izango da.

Ikasturte berriarekin hasitako lanak eta aurrekotik bukatu gabekoek bat egin dute. Plazako eta Toki Txokoko zubia oraindik bukatu gabe daude, eta Bi Kabikoa laster botako dute. Zubiaren ondoan zegoen Ermentariaren txabola bota dute dagoeneko.

Maite Mujika

Margolari herritarraren lanak ikusgai duade Beasaingo Salbatore hotelean. Urrira arte, Maitek margotutako paisaiak, erretratuak, baserriak eta bestelakoak ikusi ahal izango dira.

Mezak ETBn

Urriaren 2ko eta 9ko (larunbata) elizkizunak grabatuko ditu Euskal Telebistak. Larunbateko meza, igande goizean emango dute ETB 1ean.

Lan ugari

Etxeberriaunditik Barandiaranaundira bidea asfaltatu da

Abuztuan aipatutako bi base-
rri horien arteko bidea asfal-
tatu da. Horrez gain urbideak
hormigoiez hartu dira. Lan
honen kostua bertako base-
rrietako eta lur jabeen eta
udalaren gain joan da.

Baserriei buruzko panelak

Ataungo zehar desberdinetan
baserri bakoitzaren kokapena
zehaztuz, panelak jarri berri
dira. Horretarako baserri ba-
koitzari argazkia atera zaio
eta ondoren argazkitik irudi-
gileak irudia egin du. Lan ho-
nen kostua Goimen eta udala-
ren gain joan da. Hemendik
aurrera baserri baten kokape-
na jakin nahi duenarentzat
panel hauek oso baliagarriak
gertatuko dira. Momentuz ja-
rri diren panelak honako ze-
harretakoak izan dira: Ota-
mots, Suki, Aitzarte, Arron-
do-Aia-Kaxeta eta alderan-
tziz (bi panel jarri dira, bata
Arrondon eta bestea Kaxe-
tan) eta azkenik Lauztierreka.
Aurki beste lau panel jarriko
dira: Ajarresta, Motasoro,
Murkondo eta Txulo erreka
zeharrek agertuko direnak
hain zuzen.

Aluminiozo postontziak

Baserri bideetan zeuden egu-
rrezko postontziak oso egoe-
ra txarrean zeudela ikusita,
udalak berritzeari ekin dio.
Horregatik zehar desberdine-
tan aluminiozko postontziak
jarri dira. Postontzi berriak
jartzearen kostua Goimen eta
udalaren gain joan da. He-
mendik aurrera postontzi
hauen mantenimentua bakoit-
zaren gain joango da.

Urbide eta Olaldeetako obrak

Egun hauetan udalak San
Gregorioko Urbide eta Olalde
etxeen inguruetan obrak
egin ditu. Alde batetik Urbide
etxearen aurrealdean kotxeak
aparkatzeko lekua jarri du eta
beste aldetik Olalde aurreko
aldean oinezkoentzat asfalto
bota eta atzeko aldean kotxe-
ak uzteko lekua jarri du. On-
doren egindako obrak asfal-
tu egin ditu. Aurki ibilgai-
luentzat jarritako aparkale-
kuak markatuta geldituko di-
ra.

Umeen parke berria

San Martingo plazako zubia-
ren eta Altzanipe etxearen
tartean udalak umeen parke
berria jarri du.

San Martin jaiak

Datorren azaroan ospatuko diren San Martingo jaiak presta-
tzeari ekiteko deialdia luzatu dute datorren irailak 16 ostegu-
nerako, Aizkoate Elkartera agertu dadila nahi duena arratsal-
deko 7etan.

Lazkao Txiki lehiaketa

Aurtengo Lazkao Txiki XIII. Bertsopaper Lehiaketan Mikel
Dorronsorok eta Naiara Aldasoro ataundarrak sarituak izan di-
ra. Naiarak eta Mikelek 'Nire Olinpiadak' gaiarekin 4na ber-
tso aurkeztu zituzten lehiaketara eta 3.a eta 1. go sariak esku-
ratu dituzte hurrenez hurren.

Mendizale helduen ibilaldia urriaren 17an

Oargi Troskaetak antolatuta, datorren urriaren 17an Euskal
Mendizale Federakundearen XXVII. mendizale helduen ibi-
laldia gure herrian egokitu da. Oargi Troskaetak antolatu duen
ibilbideak 15 km izango ditu, 4 ordu eta erdiko iraupenarekin.
Abiapuntua Auzoeta Kiroldegia izango da, bertan hasi eta
amaituko baita mendi martxa. Izen ematea 3 euro kostako da
eta Kutxako zenbaki honetan sartu behar da dirua:
21010026920124633264. Bittor jatetxean bazkaria egingo du-
te eta lo egiteko lekuak ere antolatu dituzte, Gabrieleneara ater-
petxea, Aldarreta nekazal turismo etxea eta Lizarrustiko ater-
petxean. Eguna gerturatzen doan heinean honen inguruko be-
rri zehatz eta zabalagoak eskainiko dizkizuegu.

Kirol jarduerak

2004-05 denboraldirako herrian kirol zerbitzu ugari antolatu
dira urtero legez. Kontuan hartu, jarduera guztiak burutu ahal
izateko talde kopuru gutxiengo bat osatzea beharrezkoa izan-
go da. Jubilatuek, giro jator eta ederrean, gorputza osasuntsu
eta sasoiari zaintzeko aukera paregabea izango dute, astean bi
egunetan Zelaieta azpiko aretoan.

Erritmo bizia gustatzen zaion jendearentzat berriz, Aerobi-
ka San Gregorioko Elkargunean eta San Martingo ikastaro ge-
lan.

Mantenimendua, gorputza arin eta lirain edukitzeko astean
hiru egunetan (egun 1 gimnasioan), San Gregorion Zelaieta
pilotalekuan eta San Martingo Auzoetan kiroldegian.

Arrakasta handia izan duen ikastaroa, areto dantza, aurten
berriro ere aukera izango da dantza ikasteko: paso-doblea,
bals-a, salsa, boleroak... astelehenetan ikastaro gelan.

Yoga ostegunetan eta astelehenetik ostiralera nahi duzuen
ordutegian, gimnasioan zirkuitoa egiteko aukera ere badago:
zinta, bizikleta, sherpa, pesak...

Aukera hauetakoren bat interesatuz gero, Auzoeta Kirolde-
gira zuzendu behar zarete, bertako arduradunak zuzenean edo
943.18.03.84 telefonoan informatuko zaituzte. Jarduera haue-
tan izena emateko epea, irailaren 24an amaituko da.

Doltza Barandiaran





Azoka ekologikoa igandean

Kultur asteari amaiera eman-
go dion ekitaldia izango da
azoka ekologikoa, irailaren
19an. Hamargarren edizioa
izango du aurtengoan azokak
eta ohi bezala, hainbat eta
hainbat produktu ekologiko
erosteko eta dastatzeko auke-
ra izango da. Produktore, sal-
tzaile eta kontsumitzaileen
arteko topagune bihurtuko

berriro ere Zerain. Aldizkari
honen 3. orrian duzue egita-
rau zehatza.

Erromeria

Azken urteetako ohiturari ja-
rraituz, igandeko egunari
erromeriak emango dio
amaiera. Arratsaldeko
5,30etan hasiko da.



Pelikula

Aste guztian zehar izandako
bilera sortari, pelikula batek
emango dio amaiera. Mikel
Saez de Urabain ordiziarrak,

Carlos Vieirarekin batera,
'Alpinismoa munduan zehar'
filma aurkeztuko du. Ohi be-
zala, arratsaldeko 8,30etan,
Kultur Etxeko areto nugu-
sian.



Argazki rallya, irailaren 26an

Bi argazki rally izango dira
irailaren 26an: 16 urtetik go-
rakoena, XI. edizioa; eta 16
urtetik beherakoena, VI. edi-
zioa.

Helduena

Edonork parte har lezake ar-
gazki rallyan. 35 mm. ko dia-
positibak atera beharko dira.
Argazkien gaiak, izena ema-
tearekin batera jakinaraziko
dira.

Eguneko ordutegia hau xe-
da: udaletxean goizeko
8,30etatik 10,30etara karrete-
ak banatuko dira. Bildu be-
rriz, 13:00etatik 14:00etara
eta 19:00etatik 20:00etara.

Izena emateko garaian 9
euro ordaindu beharko dira.
Hori bai, bazkarian gelditu
nahi duenak, 25 euro.

Sariak honakoak dira: le-
henengoarenentzat 150 euro eta
garaikurra; bigarrenarenentzat

Ikasturte berria hasi da

Irailaren 8an hasi zuten herriko txiki-
enek ikasturte berria. 13
ikaslek, herri eskolaren kokagune berria estreina-
tu zuten gai-
nera. Pilotalekuaren aldameneko eraikuntzan, hain zuzen
ere. Ahal den neurrian, eskolak bizirik irautea da helburua.

90 euro eta garaikurra; eta hi-
rugarrenarenentzat 60 euro eta
garaikurra. Herriko lehen
sailkatuarenentzat ere egongo
da sari berezirik: 60 euro eta
garaikurra.

Sari banaketa, azaroaren
1ean egingo da, arratsaldeko
6etan, ohiko gaztina janaren
aurretik.

Haurrena

16 urtez beherakoentzako
lehiaketa da. Partaide bako-
itzak bere argazki makina eka-

rra beharko du. Karrete-
a errebelatzea antolatzaileen
ardura izango da.

Rallyaren ordutegia hona-
koa da: udaletxean goizeko
8,30etatik 10,30etara karrete-
ak banatuko dira; bildu be-
rriz, 13:00etatik 14:00etara
eta 19:00etatik 20:00etara.
Partaide bakoitzak 3 euro or-
daindu beharko ditu. Parte
hartzaile guztiek jasoko di-
tuzte sariak.

Haurren rallya, Aceralia
Perfilesek babesten du.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Eskarabillako festak

Kale Berria, Diego Rivero, Maribaratza eta Urdaneta kalekoek jai giroan biziko dute datorren asteburua. 18 urte badira Eskarabilla izenez ezagutzen den auzo horretako jaiak antolatzen ez direla, baina auzotar batzuen ekimenez, lanean jarri eta irailaren 18 eta 19rako egitarau oparoa prestatu dute.

Larunbatean haur jolasak, txupinazoa, poteoa toka txapelketa, oin lasterketa haurrentzat, herri kirolak, kale antzerkia, txokolate jana, berbena eta goizaldeko danbo-

rrada izango dira. Igandean, berriz, pailazoak, Antton Imaz eta J.I.Iturrioz abeslariak, herri bazkaria, erromeria eta kontzertua.

Herri bazkarirako karpa bat ezarriko dute eta dagoneko txiki geratu zaie, salmentan jarritako 200 txartelak berehala saldu baitira. Ziur iganderako erremedioa topatu eta bertaratu nahi duten guztiak han izango direla. Auzoko argazki zaharrez osatutako erakusketa ere ikusgai dago Itxaropena Elkartearen ondoan.



Bertsolari sarituak

Lazkao Txiki XIII. Bertsopaper Lehiaketako sarituak, antolatzailer eta sari banatzaileekin batera. Sari banaketa irailaren 12an egin zen Ordiziako Euskal Jaiei barruan.

IV. Josetxo Imaz memoriala

Buru-belarri ari dira lanean Txindoki Atletismo taldekoak. 04/05 denboraldia martxan jarria dute jada eta honekin batera Josetxo Imaz Memorialaren antolaketa lanetan ari dira. Irailaren 26an, igandea, jokatu da laugarren edizio hau eta antolatzaileek berrikuntza gisa sari berezi bat ezarri dute probako denbora haustea lortzen duen korrikalariarentzat (gizonezko zein emakumezkoentzat bana).

AEK zozketa

Goiztiri AEK euskaltegiak euskal festetako asteazken berezian zozketatutako bertako produktuez osatutako lotea 513 zenbakia duen boletoaren jabeari egokitu zaiola adierazi nahi du. Saria jasotzeko deitu 943889174 zenbakira edota Andra Maria Kalea 4-2-ekz.era joan.

Matrikula zabalik

Goierriko Bertso Eskolak zabalik du jada 04-05 ikasturterako izena emateko epea. Eskolak urriaren 18an hasiko dira, beti bezala astelehenetan arratsaldeko 5,30etatik 7etara Barrena Kultur Etxeko gelan. Gaztetxoek ikastetxean bertan izango dute izena emateko aukera eta gainontzekoek nahiko dute Bustuntza Auzoko Argi Berri Elkartera azaltzearekin.

Odolki lehiaketa

Manuel Barandiaranena izan da aurtengoan Goierriko harakinek aurkeztutako odolkien artean onena. Ez da sari hau eskuratzen duen lehen aldia (Ordiziako Kale Nagusian du Manue-

lek bere harategia) eta bigarren eta hirugarren geratu diren Campos eta Deba harategi ormaiztegiarrei buruz beste horrenbeste esan behar. Euskal jaien barruan egin zen lehiaketa eta baita sari banaketa ere. Aurkeztutako odolki guztiak dasatzeko aukera ere izan zuten Enparantza Nagusira hurbildu zirenek.

Sukaldaritza lehiaketa

Odolkiak banatzen ziren bitartean hainbat Elkartetako ordezkariak jaki goxoak prestatzen aritu ziren irailaren 7an. Prestatu beharrekoak bi platera, bata Idiazabal gaztarekin eta bestea arkumea protagonista zela. Donostiako Loiolatarrak Elkarteko sukaldariek prestatutako jakiek saria eramateko aukera eman zien.

12.100 euro

Kopuru horixe izan zen enkantean Lierniko Patxi Erretegiko nagusiek ordaindu zutena lehiaketan irabazle atera zen gazta erdiaren ordainean. Gaztarik onena Angel Errazti debar artzainak aurkeztutakoa izan zen.

Besta hainbat lehiaketen emaitzak

Irailaren 8ko peri berezian beste zenbait saritu ere izan ziren, bai barazkien sailean, bai fruituetan, oilo, ganadu eta asteazkeneko postuak ipintzen dituzten baserritarren artean. Informazio honen berri 6. orrialdean duzue.

Aitor Calvillo

San Migel jaiak

Dagoeneko prest dago aurtengo San Migel jaietako egitaraua.

Irailak 25, larunbata:

11:00etatik 13:00era: Haur parkea.

16:00etan: Ume jolasak

16:00etatik 18:00etara: Haur parkea berriro zabalduko da.

19:00etan: Vinatelia taldearen eskutik Ardo dastaketa.

20:00etan: Txupinazoa

20:30ean: Herri afaria, txekorra burruntzin erreta (Tike-tak aurrez eskuratu behar dira).

22:00etan: Karidadeko Benta musika taldearen emankizuna (Jon Maia buru duen taldea).

Irailak 26, Igandea:

12:00etan: Meza Nagusia

13:00etan: Igor Etxabe argazkilariaren 'Pusketak txuri beltzean' erakusketa zabalduko da.

18:00etan: Herri kirolak.

19:30ean: Sagardo eta txistorra dastaketa. Aulia, Begiristain, Zabala, Aburuza eta Olagi sagardotegietako sagardoak.

Herri kirol jaialdia

Irailaren 26an, arratsaldeko 6etan herri kirol jaialdia izango da. Aizkolariak eta harrijasotzaileak izango dira, Gabixola aurkezle dela.

Aizkolarietan, Iñaki Azurmendi eta Mugertza II, Peñagari-kano eta Iriarteren aurka lehiatuko dira. Bi lan burutu beharko dituzte. Kana erdiko enbor bana ebakitzea eta bikoteka, 4 kana erdiko eta 4 enbor 60 ontzako ebakitzea.

Harrijasotzen, Aimar Irigoien gaztea arituko da.

Ondoren trikitilarien jarduna izango da.

Irailak 29, asteazkena:

San Migel eguna:

12:00etan: Meza Nagusia

14:00etan: Herri bazkaria izango da, trikitilariekin eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariez alaituta.

18:00etan: Toka Txapelketa



Irailaren 25ean, larunbatean, Karidadeko Benta musika taldearen emanaldia izango da. 22:00etan. Jon Maia bertsolaria buru duen taldeak, bertsoak, erritmo ezberdinetan kantatzen ditu.

Irailaren 26an, berriz, Igor Etxabe Zaldibiako argazkilariaren argazki erakusketa ikusteko aukera izango da.



Olagi
Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta


☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

ALTZAGAKO UDALA

Herriar guztiei eta egun hauetan bisitatuko gaituzunei feta alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.

Alkateak





SASIETA MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55



Lierni jaien amaieran

Igandean irailaren 12an amaitu dira aurtezgoz Lierniko festak.

Irailaren 5ean hasi ziren XXIII. Lierniko txirrindulari probarekin eta honako hauek izan ziren probaren emaitzak:

60 kilometroko ibilbidean lehenengo hiru sailkatuak honako hauek izan ziren:

1. Aitor Olano Orbegozo (1:41:10).
2. Unai Aranzabal Anduaga (1:41:14)
3. Imanol Mendikute Erauskin (1:41:57)

Seguratik Liernirainoko 4 kilometroko erlojuaren aurkako proba egin zuten ondoren txirrindulariek eta sailkapena honako hau izan zen:

1. Unai Aranzabal Anduaga (0:07:09)
2. Gorka Izagirre Insausti (0:07:12)
3. Aitor Olano Orbegozo (0:07:16)

Bi probak konpuan hartuz **sailkapena** honako hau izan zen:

1. Unai Aranzabal Anduaga (1:48:23)
2. Aitor Olano Orbegozo (1:48:26)
3. Imanol Mendikute Erauskin (1:48:32)

Taldekako sailkapena:

1. Oriako T.E.

2. Bruesa

3. AEG Ikastetxea

Txirrindulari proban parte hartu zuten 45 txirrindularietatik 31k bukatu zuten proba.

Andre Mari eguna tartean pasa ondoren hurrengo asteburuan izan zuten jarraipena auzoko jaiek, larunbatean Poxpolo eta Mokolo pailasok arrakasta handia izan zuten, herriko eta inguruko ume asko inguratu zen ikuskizunera.

Igandea irailaren 12a azkeneko eguna izan zen eta hemen ere ekitaldi garrantzitsua izan zen: **XXIII. Pitxoi tiraketa**. 262 tiratzailek bota zuten Mutiloko Aitz-buru elkartean antolatutako tiraketan. Emaitzak berriz honako hauek, lehenengo hiru sailkatuak: Lehenengoa Juan Eloy Zendoia Azpeitia, bigarrena Anjel Manterola Eizagirre eta hirugarrena Jose Azurmendi Telleria. Herriko lehenengo sailkatua Patxi Agirre Telleria eta elkarteko irabazlea Luis Aranburu Alustiza.

Tirada egiten den bitartean zozketatzen den saskia Xabier Aranburuk eraman zuen 556 zenbakiarekin.

Toka lehiaketa ere izan zen eta bertan irabazi zutenak, Salome Olaetxea eta Iñigo Muñoa izan ziren.

Tonbolako zenbaki saritua 138 zenbakia izan zen.

Ordiziako gazta irabazlea Mutilora

Ordiziko Euskal jaien barruan azken urteotan gazta izan ohi da protagonista nagusia, zehatzago esanda bertan egiten den lehiaketa. Debatar artzainak egindako gazta erdiak Lierniko Patxi Erreitegiak erosi zuen enkante gogorraren ondoren. Eta aurtengoan hautsak arrotu dituen kontua gazta erdiarengatik ordaindu den prezioa izan da, 12.100 euro hain zuzen ere. Patxi Erreitegi Tere eta M. Sol Arruabarrena ahizpek eskuratu zuten.

Arantzazura erromesaldia

Irailaren 4an egin zen Zerain eta Segurarekin batera Arantzazura erromesaldia eta herritik koadrila ederrak parte hartu zuen ibilaldian.

Ostatuko berrikuntzak

Irailaren hasieran hasi ziren Ostatuko berrikuntza lanak. Arautegiak hala behartuta hainbat egokitzen egin beharko dira herriko ostatuan datozen hilabeteotan. Komun Publikoak eta aldameneko txabola bota dira eta bertan jarriko da taberna berria eta aldamenen sukalde handiagoa eta jangela. Goiko aldea beheko lokalarekin lotuko da eta han aldagela eta komuna jarriko dira. Gaur egun taberna eta jangela dagoen tokian berriz, komun publikoak eta 4 logela berri jarriko dira.

Jubilatuaren urteko bidaia


Urtero jubilatutako elkartek antolatu ohi duen bidaia arabar lurretara egingo da. Irailaren 18an larunbatean izango da txangoa, Amurrio, Artziniega inguruak bisitatu eta ezagutzeko aukera izango da. Goizean herritik abiatu eta egun osoko ibilaldia izango da.

Ingeles ikastaroak martxan

Aurreko urtean bezala dagoeneko hasi dira ingeles ikastaroak Mutilon. Herrian bizi den Penny Alzua ingelesak ematen ditu ikastaro hauek, udaletxeko bulegoaren goiko aldean.

Iñaki Ugalde

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
943 88 72 76

IÑAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

Eskola txikia haziz doa

38 umek eta zazpi irakaslek dihardute

Ia berrogei ikaslek hasi zuten joan den irailaren 9an 2004-2005 ikasturtea Balentzategi herri eskolan, azken urteetako goranzko joerari tinko segiz. Jaiotza tasak izan duen hazkundera nabari da orain eskolako matrikulazio kopuruan; aurtan hasi den taldeari begiratu besterik ez, bi urtekoen taldea zortzi umek osatzen baitute. Haur eta lehen hezkuntzan guztira 38 haurrek ikasiko dute. Aldamenerako Itsasotik lau etortzen dira.

Eskola txikitxo geratu eta kultur etxeko zenbait gela egokitu behar izan ditu udalak hezkuntza eskaintza ahalik txukunena izan dadin. Horrela, beheko bi geletako batean 2tik 4 urtera arteko 17 ume egongo dira, bestean 3. mailatik aurrerako zazpi eta liburutegian 14 umeri eman go zaie eskola. Irakasleen gela ere goiko solairuan kokatu dute. Izan ere inoiz baino maisu-andereño gehiagok lan egingo dute Gabiriako eskolan, zazpi denera.

Kultur etxeko gelez gain dantzalekua ere erabiliko dute, lokal handia izaki ikasle guztiak batera sartzeko ahalmena duen bakarra delako. Musika ikasteko, soinketa egiteko, bideo-gela, antzeztoki, eguraldi txarra denean atsedean garaian jolasteko, erabilera ugaria emango zaio. Pilotalekua ere astean ordu batzutan eskolarentzat erreserbatuta izango da.

Urtean zeharreko irteera batzuk zehaztuta dituzte dagoeneko, umeek eurek proposatutakoak eta "negoziatu ezinak" direnak: gazta egiten ikastera, Bilboko gabonetako parkera eta Zubietara Realaren entrenamentu saioa ikusterera joatea dira urte osoan txintxo portatzeko baldintzak. Irailaren 20an Donostiako zinemaldian Spykids II filma ikusterera joatekoak dira, baita ere. Eskola txikiaren abantailak.

Ikastetxearen inguruko zerbitzuek lehenean jarraituko dute. Autobusez eta taxiz -lau ikaslek erabiltzen dute-

datozenek Ostaturun egingo dituzte otorduak. Eguerdietan zaintzailea egongo da, eta zerbitzu hori goizera luzatu

nahian dabilta, 8,30etatik 9etara, hain zuzen. Guraso elkartearen ez dago aldaketarik iaztik.

Labur-labur

- **Goierriko txirrindulari itzulia bisitari** izan dugu lehengo astebukaeran. Karrerako hiru egunetan Aztiri -hiru aldiz-, Atagoiti eta Gabiria igo dituzte afizionatu mailako txirrindulariek.
- **Gripearen aurkako kanpaina** abian jarriko da datorren astelehenetik aurrera. Edadekoei eta gaixobere txertoa jarriko zaie herriko kontsultan.
- **Eneritz Gorrotxategi, Andoni Zaballos eta Iban Irastabarrena** Hungarian ibiliak dira abuztu partean dantzari nahiz txistulari, Beasaingo Aurtzaka dantza taldearekin joanda.
- **Ordiziako euskal jaietako azoka berezitik sari bakarrak** Zantagoitiko **Pello Olariagak** ekarri ditu, bertako arrazako oiloekin; bat zilarra motakoetan eta bestea Goierriko lote onena.
- **Irailaren 9ko txingorrek kalte handiak** eragin ditu herriko soro eta baratzetan. Harriak ugari zetorren sagarra mailatu zuen, baita artasoroak etzan ere. 42 litro ur bildu ziren metroko (datua: Gabino Murua, DV).
- **Goierri osoan bezala, Hitzaren aurkezpen alea** irailaren 11n banatu zen etxeetara.

Aimar Miaz

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY
FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Jubilatuen eguna

Igande honetan, hilaren 19an, ospatuko da aurtengo jubilatuen eguna. Goizeko 11,30etan emango zaio hasiera meza nagusiarekin. Jarreraian, hamaiketako banatuko da herriko Jota Kea eta Bilkoin elkartearen eskutik. Eguerdiko ordu bietan herriko jaietan ospatutako karta joko eta pote, igel eta toka txapelketetako irabazleei sariak emango zaizkie. Honez gain, urtero-urtero herriko zaharrenei ere saria ematen zaie. Aurtun, Antonio Lasa

eta Maria Pikabeari egokitu zaie, euren 90 urterekin.

14:30ean izango da bazkaria, Intsausti jatetxeak eskainia, ondorengo menuarekin: arrain zopa, legatza, solomilloa guarnizioarekin, ijito besoa eta kopa, kafea eta purua hala nahi duenarentzat. Bazkalondoan musika ere izango da, eta eguna ondo amaitzeko, jubilatuz guztiek Kutxak eskainitako opari bana jasoko dute.

Zelai Amenabarro

Ugaro Herri ikastetxean ikasturte berria hasita

Joan den asteazkenean, hilaren 8an, hasi zen 2004-2005 ikasturte berria Ugaro Herri Ikastetxean. Astebete eta erdi aritu dira goizez eskolak ematen, eta garraioa eta jantokia ere martxan jarri ziren lehenengo egunetik bertatik. Datorren astelehenetik hasiko dira ohiko ordutegiarekin, goiz eta arratsalde alegia.

Aurtengo berrikuntza nagusia haur eskolan egin da, 0-2 urte bitarteko haurrentzat eskola zerbitzua eskainiko baita. Birmoldaketa moduko bat egin da, gela batzuk aldatuz. Irakasleak eta haurrak prest daude lanean hasteko, eta urtea amaitu baino lehen zerbitzua martxan jartzea espero da.

Herriko futbol taldeak lanean

Dagoeneko martxan da aurtengo futbol denboraldia. Aurtun ere bi talde izango dira Legorretan. Bata, Bilkoin Legorreta, Urko Etxeberriaren gidaritzapean. Autonomika mailan arituko dira.

Beste taldea, aldiz, Ibai Amenabarrok gidatuko du, eta Bigarren A mailan jokatu dute. Partiduak urriaren hasieran hasiko dira.

Aerobic eta mantenimenduko soinketa ikastaroak

Udaleko Kultur Batzordeak hiru ikastaro antolatu ditu, bi Aerobic-eko eta bestea Mantenimenduzko Soinketako Kutxa Gizarte-Ekintzaren laguntzarekin.

Ikastaroak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira Ugaro Ikastetxeko Soinketa Gelan. Aerobic ikastaroak bata 9etatik 10etara izango da eta bestea 18:30etik 19:30era eta Mantenimenduzko Soinketa berriz 19:30etik 20:30era. Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira 2005eko maiatzaren 30ean amaitzeko.

Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu (15 ikasle) eta ize-na emandako orden zorrotzean beteko dira. Ikastaro osorako matrikularen kostua 200 eurotako izango da (25 euro/hileko) eta Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute edo bertan emandako argibideak jarraituz egindako ordainketa agindu iraunkor bitartez. Ikastaroa hasi ondoren ez da matrikula dirurik itzuliko ezta ordainketarako agindu iraunkorra baliogabetuko. Izena emateko epea irailaren 24an amaituko da.



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zdk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

San Migel ospakizunak irailaren 25ean

Irailaren amaierarekin batera urtero bezala aurten ere San Migel egunaren inguruko ospakizunak burutuko dira. San Migel ospakizunak irailaren 25ean burutuko dira, ohi bezala, iraileko azken asteburuan.

Goizez toka txapelketa herrikoia eta harrikalari txapelketa jokatu dira. Arratsaldean ekitaldiz bete izango da. Mus txapelketa herrikoia, Guraso Elkarteak prestatutako haurrentzako txokolate jana eta jokoak, eta eguna

amaitzeko berriz, herri afaria. Ohiko menua izango da afarian: txorixo eta odolki egosi pintxoak, marisko krema, erredondoa saltsan eta ijitu besoa. Afaltzera joatekoak direnek, aurrez, txartelak erosi behar dituzte. Herriko tabernetan daude salgai.

Mendi bizikleta proba

San Migel ospakizunen barnean burutzen da mendi bizikleta proba ere. Ohi bezala, igande goizez burutuko da, irailaren 26an. Partaideek

Jubilatuen ibilaldia kostara

Herriko jubilatuek irailaren 23an kostaldera ibilaldia egingo dute. Oraingoan Hondarribia eta Guadalupe izango dituzte ikusgai. Jarraian, Oriora hurbilduko dira, bertako Ardora jabetxean bazkaldu ahal izateko. Goizeko 9,30etan irtengo dira herritik.

Ibilaldira joan nahi dutenek, izenak lehenbailehen eman behar dute Elkartearen bertan.

Eskulan ikastaroa

Urriaren 5ean emango zaio hasiera aurtengo eskulan ikastaroari. Aurreko urteetan bezala astearte goiz eta arratsalde burutuko da. Argibide gehiago behar izanez gero, aipatu egunean bertara hurbiltzea edo Carmen Sotorekin harremanetan jartzea nahikoa duzue.

herria eta ingurunea hartuz prestatutako ibilbidean zehar aritu beharko dute. Izen emateak udaletxean bertan egin

beharko dira. Helmuga Itxune erretegiaren aurrean kokatuko da.

Aitziber Murua



Goierritarra

Goierri aldizkaria jasotzeko ez da derrigorrezkoa 12 euroak ordaintzea. Goierri kanpo jasotzeko bai.

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa.: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia** eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro kobratuko dizkizugu kontu korrontetik Ipar Euskal Herrian edo Europan jasotzeko 24 euro ordaindu behar dira eta Europaz kanpo jasotzeko 36 euro.

Adineko pertsonen eguna, irailaren 19an

Irailaren 19an ospatuko dute herriko adineko pertsonen eguna. Dena den, ekin-tzak bezperan hasiko dira Beti Bizi eta Loinatz Txirrindulari elkarteek antolatutako txapelketekin. Goizean, 11,30etan, toka eta igel jokoak izango dira eta arratsaldean, 3,30etan, mus, tute, puntu eta seiko jokoak. Txapelketa hauetan parte hartzeko izenemateak Erretiratuen Etxeko bulegoetan egin behar dira irailaren 15etik 17ra 16,30etik 18,30era. 65 urtetik gorako beasaindarrentzat dira jokoak.

19an izango da egun nagusia. 11:00etan meza izango da Loinazko San Martin baselizan; 13:30ean, bazkari-omenaldia egingo dute Antzizar Kiroldegian. Bazkalondoren, Patxi Plazaola alkatearen agurra, bezperan jokaturako jokoetako irabazleentzat sari banaketa, eta lehen omenaldia jaso ez duten bi pertsona helduenei omenaldia (opariak eta ohorezko aureskua, Aurtzaka dantza taldeak eskainita). Eta festa bukatzeko, dantzaldia Arrasto taldearekin.

Nekane Altuna

Ikastaroak Urbietan

Urbietan Arte Plastikoen Zentroak ikasturte berriari hasiera emango dio urrian. Irailean zehar ikastaro desberdinetan izena emateko aukera izango da Udaletxeko Kultura Sailera joanda edo bertara deituta.

Hauek dira emango dituzten ikastaro desberdinak: marrazki eta pintura, zeramika eta esmaltaketa, joste eta ebaketa, argazkigintza, artzerkia eta baleta.

Asmuberen ikastaroak

Urritik aurrera, Beasaingo Emakumeen Elkartek, Asmubek antolatuta, hainbat ikastaro izango da aukeran: Yoga, eskulanak, hari lanak, patchwork, merenge eta saltsa dantzak, tai chi, oleo pinturak, ordenadore bidezko mekanografia eta word programa. Ikastaroren batean parte hartu nahi izanez gero, Asmubek Urbi-etxean duen lokalean eman behar da izena.

Urrirako ere beste bi ekintza aurreikusiak dituzte: fibromialgia eta astenia kronikoari buruzko hitzaldia, urriaren 13an; eta 'Emakumea eta komunikabideak' gaiari buruzko tailerra, Udazken Kulturalaren barruan, urriaren 25ean.

Igartza literatura bekaren saribanaketa

Irailaren 15ean egin zen Igartza jauregian, VII. Igartza literatura-sorkuntzako bekaren saribanaketa. Hurrengo alean jasoko dugu irabazlearen izena, aldizkaria saribanaketaren aurretik bukatu behar izan genue eta.

Ekitaldi berean, iazko irabazleak, Bermeoko Asel Luzarragak, bere idazlana esandako epean bukatu duenez, bekaren bigarren erdia jaso zuen.

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22an Autorik gabeko eguna ospatuko du Beasainek. Europa mailako eguna da eta Beasainek bat egin du aldarrikapen honekin. Herriaren erdigunea oinezkoen gune aldarrikaturiko da. Hainbat kaletan ahal den ibilgailu gutxien mugi daitezten saiatuko da Udala horretarako neurriak hartuaz. Egun horretan, garraio publikoak erabiltzen edota oinez edo bizikletaz mugitzen saiatzea du helburu Udalak.

Lurdesa erromes-bidaia

Urtero bezala, Gipuzkoako Goierriko parrokiek Lurdesako erromes-bidaia antolatu dute aurten ere. Urriaren 3an izango da. Beasaindik, Barrendain plazatik (RENFEren geltoki ondotik), goizeko 6etan irtengo dira. Joan-etorriko bidaiaren prezioa 23 eurokoa izango da.

Izena eman nahi duzuenok irailaren 25era bitarte duzue aukera, Maite Zubiaurreren dendan, San Inazio Kalea, 1an. Telefonoa: 943 881715.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazi duenez, irailaren 28an egingo dela odol ateratzea. Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertan azal dadila.

Laskaibar Auzoko eta Arana Bideluzeko jaiak

Laskaibar auzokoek, irailaren 24 eta 26an ospatuko dute euren jaiak. Irailaren 24an, 18:00etan, Udaleko txistulari-bandaren kalejira eta suziri jaurtiketa egingo da. Irailaren 26an, eguerdiko 12etan, hildako auzotarren omenezko meza egingo da eta 14:30ean bazkaria izango dute Olaberriko Arrieta Jatetxean.

Arana Bideluzekoek ere asteburu berean ospatuko dituzte jaiak. Irailaren 24an, 18:30ean, danbatekoa, eta erraldoi eta buruhandiak aterako dira eta 21:00etan 'Disco top' disko festa izango da. Irailaren 25ean, 12:00etan, haurrentzat herri kirolak antolatu dituzte. 18:00etan, top euskaraokea eta 23:00etan, 'Los Veracruz' laukotearen emanaldia. Irailaren 26an 12:00etan, Xurdir Ipoxen Munduan, 12:30ean, trikipotea, Koldo Iparragirre triitixa eskolako ikasleak alaituta eta 16:00etan, haurrentzako puzgarriak eta kars-ak antolatu dituzte.

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak

...

Lan bertikalak S.L.

Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN X. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 19
ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka
17:30etik 19:00ak jo arte erromeria
Goizez: erakusketa eta tailerrak

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestb.es

ANTOLATZEN DUTE:



ZERAIN
DEZAGUN
FUNDATZIOA

2004/2005eko EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK, ALFABETATZEA, ETORKINENTZAKO HARRERA IKASTAROAK.
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK: Administrazioa, Osakidetza, Irakaskuntza, EGA, Internet bidezko ikastaroak.

Orduak: Astean 10 ordu / Astean 8 ordu / Eskaerari egokitutako ikastaroak.

Ikasturtea: 2004ko irailaren 15etik 2005eko ekainaren 23ra.

Matrikulatzeko epea: Irailaren 1etik 17ra.

Bulego ordutegia: Goizez: 09:00-13:00 / Arratsalde: 15:00-18:00

Beka sistema.

SÍO...
BAI?

Erantzuna Udal Euskaltegian



'Baina nik poza kantatutzen det': mendeari gainbegiratua

Ordiziarrek egindako hitz, musika eta argazki ikuskizuna

Euskal Jaien emendeurrenaren barruan, irailaren 24an, gaueko 10,15etan, Ordiziako Herri Antzokian, 'Baina nik poza kantatutzen det' ikuskizuna izango da ikusgai. Mendeari gainbegiratu bat ematea izan da ikuskizun honen helburua. Patxi Zubizarretak prestatu du gidoia.

Patxi Zubizarreta ordiziar idazleak prestatu du 'Baina nik poza kantatutzen det' ikusizunaren gidoia. Bera izango da narratzailea. Ikuskizunean parte hartuko dutenak honakoak dira: Mari Karmen Odriozola, 104 urteko amona; Garazi Hach Embarak, Ordiziara oporretan etorri den sahararra; Gema Arrugaeta argazkilariak argazki zaharren kaxa zabalduko du; Pello Ramirez, Karlos Gimenez eta Olatz Zugasti musikariak; eta Jabi Ulla argiztatzailea. Ondoko koadroan duzue ikusizunaren ildoak.

Patxi Zubizarretak kontatu digu ikuskizun honen berri zehatza.

Zergatik prestatu du 'Baina nik poza kantatutzen det' ikuskizuna?

Milan Kunderak dioenez, zenbat eta azkarrago bizi, orduan eta azkarrago ahazten dugu. Eta joan den mendeko istorioak eta historia azkar ahaztu ez ditzagun sortu da ikuskizun hau. Bestalde, Joxe



Patxi Zubizarreta

Arratibel beneditar ataundarrak zioenez, azken hogeitahogeita hamar urtean bizimodua gehiago aldatu da, aurreko mende askotan baino (etxean urik edo komunik edo telebis-

tarik edo telefonorik gabe jaio zirenek, gaur egun hori guztia daukate, eta autoa, eta ordenagailua...). Hortaz, oroimen ariketa horrekin batera, aldaketa horren berri ematea ere izan da gure helburua.

Nori zuzendua dago ikuskizuna?

Gorago esandako guztiagatik, saioa denentzat egina dago, gazte nahiz zahar, baina ahalgin berezi bat egin dugu pertsona nagusiak gustura senti daitezen, beren euskaraz zailtasunik gabe gozatu dezaten, eta saioan esan, entzun eta ikusiko duten guztian, beren burua ikus dezaten. Kasu honetan ikusleak dira benetako protagonistak,

historiaren egile eta lekukoak. Eta ez ordiziarrek bakarrik. 'Baina nik poza kantatutzen det' Goierriara eta goierritarrei begira egindako saioa da.

Elementu ezberdinak sartu dituzue ikuskizunean.

Ordubete inguru iraungo du, eta hitzaren, musikaren eta irudiaren bidez mende baten errepaso xumea eta partikularra —familia baten bidez, nolabait adieraztearren— egin nahi izan dugu, nolabait ere geure buruaren ispilu bat osatu. Saioan zehar, intriga, poesia, kantu zaharrak eta sorpresa bat edo beste izango dira, benetan arina eta entretenigarria izan dadin.

Hitza, irudia eta musika

Patxi Zubizarreta: Narratzailea izango da. Bertan 104 urte dituen birramona baten eta 18 urteko bilobaren arteko elkarriketak jasotzen dira; birramona eta biloba pasioan joaten dira, orain Arama aldera, orain Oiangura, orain Donostira, orain Ordiziako kaleetan —peri egunean—; eta birramonak pasadizo eta gertakari esanguratsuak oroitu eta, bilobak galdetu egiten dio.

Birramona. Mari Karmen Odriozola. 104 urtekoa izan arren, oso buru argiko pertsona da, oso oroimen onekoa, eta gertakari txar asko bizi izan arren, Lazkao Txikiren bertsoan bezala, "Baina nik poza kantatutzen det, penak neurtzat gorderik" dio bere bizitzaren akabera aldean.

Biloba. Garazi Hach Embarak. Saharan jaioa da, baina euskaraz primeran daki; gabonetan Ordiziara etorri da hemengo familia ezagutzera, eta benetan harrituta geratuko da birramonaren izaera eta bizipozarekin.

Argazkiak. Gema Arrugaeta.

Etxeetan egoten ziren argazkiz betetako zapa-ta kaxen antzera, Gemak ikuskizunean zehar bere kaxa zabalduko digu, bere ikuspegia azalduko digu, bai garai bateko Ordiziari —Goierri— begira, bai gaur egungoari begira. Bere diapositibek ilustratu egingo dituzte elkarriketak batzuk, baina protagonismo berezia izango dute.

Dena dela, argazkietan batez ere Ordizia eta ordiziarrek agertuko dira, eta horregatik berriro ere herritarrek bihurtuko dira benetako protagonista.

Musika (Pello Ramirez, Karlos Gimenez eta Olatz Zugasti).

Txeloia eta akordeoia, pianoa eta harpa —eta ahotsa—. Musika osagai gozagarria izango da, baina baita sentimenduak eta oroimena pizten laguntzen digun bidea ere. Hitzaren eta argazkien lagungarria baino gehiago izango da, hitza eta irudiak hobeki geureganatzeko pizgarria izango da. Nabarmendu beharra dago Karlos Gimenezek ikuskizunerako propio sortutako doinuak entzun ahal izango ditugula, eta Olatzek ere bere disketatik hainbat kantu eskainiko dizkigula.

Goierriko Bertso Eskola: 'Zatoz eta jarri bertsoak ikasturte berriari!'

Urriaren 18a, astelehena, arratsaldeko bost eta erdiak, Ordiziako Barrena kultur etxea. 1982az geroztik belaunaldiz belaunaldi gorpuztutako kateari katebegi berri bat uztartuko dio Goierriko Bertso Eskolak ohiko gune, egun eta orduan.

Hogeita bi urte dira Ordiziako Argi-Berri elkartearen inguruko taupadak bereganatuko zituen bihozkadari forma ematen hasi zitzaiola. Goierriko ikastetxeetako zenbait ordezkariarekin bildu eta klaseak emateaz arduratuko ziren irakasleak aurkitu ondoren, berrogeita hamaika ikaslerekin ekin zion ametsak errealitateko bideari. Baita lortu ere!

Asko gara urteen joanean bertsoa komunikazio tresna bihurtu dugunak, hitzarekin jolasten ikasi dugunak, neurri-errimez maitemindu garenak. Dela bertsolari, dela



Aurtengo maiatzean Goierri-Urretxuko taldeak Gipuzkoako eskolarteko txapelketa irabazi zuen Zarautzen. Ezkerretik eskuinera: Joseba Agirrezabala, Ainhoa Mujika, Amaia Iturrioz eta Manex Mantxola.

epaimahaiko, dela gaijartzailer, dela entzule, denok bertsozale.

Bertso Eskola ez da neurritzen eta errimatzen irakasten den tokia bakarrik, irudimenaren, sormenaren, ahozko-

sunaren, bat-batekotasunaren eta lagunartean lantegi ere bada. Euskararen harribitxi, hizkuntzaren altxor. Halaxe aitortu digute aurtengo Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketan txapeldun geratu

diren Ainhoa Mujika, Joseba Agirrezabala eta idiazabalarrak: "Etxeko zaletasunak jarri gintuen Bertso Eskolara bidean, guri telebistan ikusten genituen bertsolariak gustatzen zitzaizkigun eta haiek bezala kantatu nahi genuen". Bi urteko ahaleginaren ondoren, eredu dituztenen mailara heltzeko asko falta bazaie ere, beraien gaztean gai dira bat-batean aritzeko, baina ez hori bakarrik, baita komunikazio egokira ezberdinak jorratu, baliabide poetikoen bidez hizkuntza aberastu eta bertsoa bitarteko dela harreman berriak gauzatzeko ere. Zaletasuna maitemini bihurtua.

Beraz, badakizu, zuk ere astelehen arratsaldeak erri-ma, neurri eta doinu berriekin alaitu nahi badituzu urriaren 18an arratsaldeko 5,30etatik 7etara Ordiziako Barrena kultur etxera agertu besterik ez duzu. Argibide gehiago behar izatera deitu telefono zenbaki honetara: 649011262 (Aitor).

Ekaitz Goikoetxea

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

GUKlan

Bainuko osagaiak
Berogintza
Iturgintza
Gasa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Zer ekarpen egiten digu bertso eskolako jardunak?

Gaurko gizarteak, eskola tradizionalen jasotzen zenaren aurka, ez dio gizakiari eduki metaketa ahalik eta handiena eskatzen. Hori garai bateko eskolaren kontua da, egun, gaitasunak eskatzen dira alde guztietan, bizitzak beti eskatu dizkigun bezala.

Gizartea aldatzen ari da. Funtzionatzeko, gauzak labur, argi, zehatz eta denbora gutxian adierazi behar dira. Bizitza intensora ohitzen gaitu eguneroko jardunak eta horren adibide / eragile ditugu telebista, irratia eta gainerako hedabideak.

Bide horretan, bertso eskolaren zereginak lehen mailako garrantzia eta eragina du, egungo bizitzan gazteak txertatzeko orduan. Zergatik? Helburu nagusia ez duelako bertsolariak sortzea ezta bertsozaleak sortzea ere, bizitzarako gaitasunak ematea baizik.

Bertso eskolan dabilenak, besteak beste, memoria lantzen du, azkar eta sakon arrazoitzen ikasten du, besteen argudioak entzun eta errespetuz kontra egiteko teknikak barnerraten ditu.

Baina batik bat, bertso eskolak, taldeko jardunean trebatzen du. Taldean arrazoitzeak eta sakontzeak dakartzan onurez ohartarazten gaitu. Batek esandakoak sortzen digun lilurak edo korapiloak, gure diskurtsoan sortzen duen norabide nahiz forma eraldaketa premiaz, begiak irekitzen laguntzen digu. Momentu bakoitzean nabardura aproposenak egiteko gaitasuna txertatzen goaz, jolasean, ia oharkabean.

Heldu gara, gauzak ongi egiteaz gain, ongi saltzen jakin behar dugun garaietara, bestela, arrakasta ezin ziurtatu. Erdi eta goi mailako tituludun ugari dago merkatuan, antzeko produkzio gaitasunak dituen baina, egin duena komunikatzerakoan alde handia dago batoren eta bestearen artean. Batzuk oso



2003-04 ikasturtea, Goierriko bertso eskola, Ordiziako taldea. Zutik: Mikel, Hodei eta Mikel irakaslea. Eserita: Jon, Andoni, Joseba eta Ainhoa. Guztiak ez daude, baina daudenak guztiak dira.

onak dira berez, adierazkortasun bikainekoak direlako baina, dohain hori gabe munduratu denak, non lor dezake? Bertso eskolak ederki lagun diezaioke bizitzarako makulu horiek hartzen, bai berez ongi moldatzen denari, hobetu dezakeelako, eta bai moldakaitzari, beti aberastuko duelako bere etorria.

Gainera, aisialdirako tresna paregabea eskura dezake edonork: kantuan gozatzea. Taldean kantuan aritzeko joera sor diezaguke, lotsa eta herabetasunaren ordean ausardia geureganatuz eta, horretarako, euskal kultura, bertso nahiz kanta zaharren altxorren bidez ikasiko dugu. Bide batez, bertsoari aritzeko kapaz izatea lortzen badu, hobe, baina ez da ezinbestekoa.

Konpetentzia handia da arratsaldeko ordu jakin batzutan dagoena haur eta gazteak 'okupatzeko'. Niri iruditzen zait, denbora hori bikain darabilela irudimena, forma, mezua, sormena... lantzeko bidean ari denak, ate asko ireki baitiezazkioke bizitzan.

Iñaki Murua



TAPIA

**TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industrirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21
943 88 95 94
LAZKAO

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

musika

ALTZAGA:

Irailak 25, Karidadeko Benta, 22:00etan, pilotalekuan.

BEASAIN:

Irailak 18, 'Euskal praise' diskoaren aurkezpena, Usurbe Antzokian, 12:00etan.

Irailak 24, 'Disko Top' disko festa, 21:00etan, Arana-Bideluzeko jaietan.

Irailak 25, Top euskaraokea, 18:00etan, Arana-Bideluzeko jaietan.

Irailak 25, 'Los Veracruz' laukotea, 23:00etan, Arana-Bideluzeko jaietan.

GAINTZA:

Irailak 25, Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria, gauean.

ITSASONDO:

Irailak 17, Irats taldea, 23:00etan.

Irailak 18, DJ Belarekin disko festa, 22:00etan.

ORDIZIA:

Irailak 17, Mikel Markez 'Erabil nazazu' diskoaren aurkezpena, Herri Antzokian, 22:15ean.

Irailak 18, Trikizio taldea eta DJ Bull, Eskarabilla auzoan, 23:00etan.

Irailak 19, '33 rpm' taldearen kontzertua, 20:00etan. Eskarabilla auzoan.

Irailak 25, Txistularien alardea, Plaza Nagusian, 20:00etan.

ZALDIBIA:

Irailak 24, Xapre, Furriela, Makalo eta Jexuxen jazpnarekin erromeria, 19:00etan.

Irailak 25, Benito Lertxundi, pilotalekuan, 22:30ean.

pailazoak

GAINTZA:

Irailak 25, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, 17:00etan.

bertsoak

ZALDIBIA:

Irailak 26, Altzo-txiki eta Patxi Iraola, 12:00etan.

pailazoak

ORDIZIA:

Irailak 19, Patxin eta Potxin pailazoak, 12:00etan, Eskarabilla auzoan.

dantza

GAINTZA:

Irailak 26, Urdaneta dantza taldea, 17:30ean.

ZERAIN:

Irailak 19, erromeria, eliza atarian, 18:00etan.

hitzaldiak

BEASAIN:

Irailak 17, 'Bibliaren euskarazko itzulpenaren historia', Udaletxeko Batzar aretoan, 19:00etan.

ORDIZIA:

Irailak 17, Ehunatek antolatuta, Pedro Manterolaren (Oteiza Katedraren zuzendaria eta Oteizaren etxe-museoaren zuzendaria) hitzaldia, Barrenan, 20:00etan. Ondoren, 'Ekosistema' laburmetraia eskainiko da.

bestelakoak

ORDIZIA:

Irailak 18, Urdaneta kalean, Gorringo taldearen 'Munduko arrautzik handiena' kale ikuskizuna, 18:00etan.

Irailak 24, 'Baina nik poza kantatutzen det', ikuskizuna, Herri Antzokian, 22:15ean.

Goierriko txistularien alardea Ordizian, irailaren 25ean

Euskal Jaien barruan, irailaren 25ean, arratsaldeko 8etan, Ordiziako Plaza Nagusian, Txistularien alardea iznago da Ordiziako Txistulariek antolatuta. Ordiziako metal-boskoteak, Ordiziako dantzariak, perkusio taldeak eta abesbatzak ere parte hartuko dute alardean. Guztiak, Ana Lekuonaren zuzendari-tapean arituko dira.

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztipoak
Diagnosia eta tratamendua

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak

ARRIETA

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Benito Lertxundi Zaldibian, irailaren 25ean

Disko berrirako kantuak abestuko ditu

Gaueko 10,30etan, Zaldibiako pilotalekuan izango da Benito Lertxundi kantariaren kantaldia. Disko berria grabatzen ari da eta Zaldibian grabatuko ditu hainbat abesti. Sarrerak aurrez daude salgai, herriko tabernetan. Iazko azaroan erre zen Urtsu-haundi baserriaren aldeko jaialdia da.



erakusketak

BEASAIN:

Azarora arte, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

Irailaren 18ra arte, 'Bibliari buruzko erakusketa, Udaletxeko Batzar aretoan. Ordu-tegia: larunbatean: 19:00etatik 21:00etara eta igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Irailaren 24an hasita, M. Jesus Lopezen pintura-erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Urriaren 29ra arte, Koldobika Jauregi eskulturgileraren erakusketa, Barrenan.

Irailaren 9an hasita, Barrena jauregiko kutxen erakusketa iraunkorra, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Irailak 19, Aizkorri Mendizale Elkartea: Besaidera.

Irailak 26, Aizkorri Mendizale Elkartea: Kanpaldia.



Alkizarra, Eliza atarian, bere eskulturak jartzen.

Koldobika Jauregi eskulturgilearen erakusketa Ordizian

Euskal Jaien mendeurrenaren barruan, erakusketa berezia prestatu du Alkizako Koldobika Jauregi eskulturgileak. Hiru kokalekutan dago banatua erakusketa: Barrena jauregian, Elizako ataria eta Barrenako parkean.

Material ezberdinez egindako lanen erakusketa prestatu du Jauregik: harria, burdina, egurra, zeramika, marrazkiak eta xilografiak. Urriaren 29ra arte dago ikusgai.

Ordiziarentzat eskultura

Erakusketa amaitzen denean, obretako bat, Ordiziako lekuren batean jarriko da, erakusketaren oroigarri eta mendeurren ospakizunen lekuko.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Irailak 18-19: Cuesta.
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Irailak 25-26: Laurnga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

2004-2005 IKASTURTEA

TALDE TXIKIAK

- ✓ Banakako atentzioa
- ✓ Ordu-tegi zabalak
- ✓ Ikasgai guztiak
- ✓ Irakasleko trebatua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduloak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Marrazketa
- ✓ Teknologia

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
- ✓ Kontsultak
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordizian etxebizitza salgai. Poligonoan. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta ganbaratxo. Garajea aukeran. 650337258. 18:00etatik 22:00etara deitu.

➔ Seguran etxebizitza salgai. 943801392.

➔ Legorretan etxebizitza salgai. Egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta trastalekua. Balkoi handia. 647586507. 13:00etatik 14:30era deitu.

➔ Idiazabalgo Kale Nagusian, etxebizitza salgai. 100 m². 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta sukalde-ondoa. Bi balkoi, bat handia. Dena mobleztatua. 679333579.

➔ Itsasondan etxebizitza salgai. Egongela handia, 3 logela. Sukaldea eta bainugela berriztatuak. Mobleztatua. Balkoi handia. 30 m²ko garajea eta lursaila. 647431592.

errentan hartu

➔ Senar-emazte bikote batek etxebizitza behar du alokairuan, Lazkaon edo Ataunen. 645719618.

errentan eman

➔ Nafarroan, Urbasa ondoan, etxea alokatzen da. 10 lagun edo gehiagorentzako. Ingurune berdea, aparkalekua, barbakoa, txokoa, egongela. 948539381 - 616537765.

elkarbanatzeko

➔ 3 pertsona behar dira Bilbon ikasle pisua osatzeko. 943187126 - 943884305.

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Partzela

salgai

➔ Lazkaon, partzela urbanizatua salgai. Inmobiliariak izan ezik. 17:00etatik aurrera deitu. 658704793.

Pabilioiak

errentan eman

➔ 250 m²ko (bi solairutan banatua) pabilioia alokatzen da, Lazkaoko Ibabe industrialdean. Ekipatua dago. 669340218.

Negozioak

salgai

➔ Ileapaindegia salgai Lazkaon. Bezero ugari-ekin. 943883739.

Animaliak

salgai

➔ 26 ardi salgai. 696220099.

➔ Rottweiler arrazako txarkumeak salgai. Pedegree onarekin. Prezio onean. 943160377.

➔ Opel Vectra 1.7 TD salgai. Aire egokitua, abs, irrati cd-a. 8 urtekoa. Egoera onean. Beti garajea egona. 669239195.

➔ Seat Ibiza Disco 1,5 salgai. SS-AH matrikula. 400 euro. 628264441.

➔ Mercedes Vito salgai. 2.2 cc, 122 zaldi, 112 cdi. 2002. urtekoa. 32.000 km. 609853713.

➔ Opel Vectra, gasolina, salgai. SS-AZ. Egoera onean. 943801168.

➔ Opel Vectra 2.0 GT salgai. 1994. urtekoa. Aire egokitua, llantak, elurretako gurrpilak eta gaineko barrak. Egoera onean. 617128654.

➔ Peugeot 206 XR 1.4 modeloa salgai. 5 atekoa. 2001. urtekoa. 85.000 km. 680686518.

Lagun bila

➔ Egunero, Ordiziatik Eskoriatzara joateko kotxea konpartitzeko lagun bila nabil. 943086444.

Ibilgailuak

salgai

➔ Volkswagen Polo GT autoa salgai. 626609367. Egoera onean. 900 euro.

➔ Peugeot 306, diesel, salgai. 16.000 km. 2 urtekoa. 615726481.

URRAKI
BIDAIAK

OVER Taldea

Pilarika zubia:
Galizia, zirkuitua,
145 euro

Kale Nagusia 42, behe
Tel./Faxa: 943 80 40 15

BEASAIN

urakibidai@telefonica.net

GERTU abokatuak



• AHOLKULARITZA JURIDIKOA
• ENPRESA ZERBITZUAK
• ASEGURUAK

BEASAIN

gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

ainaraetxeberria

HANKARA
podologia zentroa



Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4

BEASAIN

Bestelakoak

salgai

- ➡ Moncayo Alhambra-430 karabana salgai. 5 lagunentzat. Egoera onean. Komuna eta sukaldea erabili gabeak. Osagarri guztiekin. Beti garajejan egona. 669239195.
- ➡ Hispania RX Racing motorra salgai. 2001. urtekoa. Egoera onean. 609944562.
- ➡ Baserritik zuzenean, sagar ekologikoak salgai. 943161945..
- ➡ Seat Leon FR 17ko llantak salgai. Separadoreak 2 zm.koak. 652754858. 18:00etatik aurrera deitu. Aritz.
- ➡ Gas Gas 97 trialeko motorra salgai. 617768011. 18:00etatik aurrera deitu. Harkaitz.
- ➡ Sutarako pago egur lehorra salgai. Edozein neurritara moztua. Etxera eramango dizugu. 615755762.

➡ Errepideko txirrin-
dua salgai. Zeus marka-
koa. 943806123.

➡ Play sation 2 sal-
gai. 2 memory stick eta
2 mando analogiko. 30
joko berriekin. Prezio
oso interesgarria.
628264441.

➡ Samsung markako
ekipoa salgai. Hiru cd-
rentzako tokia, kaseten-
tzako bi pletina, irratia
eta mandoa. Altzaria
aukeran. Berriak eta gu-
txi erabiliak.
943884631 -
680174076.

Lana

eskaerak

➡ Emakume bat behar
da etxeko lanak egiteko,
asteen 5 egunetan. Eus-
kalduna, ahal bada.
653705904.

➡ Asteburuetarako
zerbitzaria behar da.
Euskalduna. Esperien-
tziaduna bada hobe.
606212314.

➡ Pertsona euskaldu-
na behar da asteburue-
tan tabernan lan egite-
ko. 943886577.

➡ Zerbitzaria behar
da, Beasainen.
629160500 -
627122097.

➡ Etxeko lanak egite-
ko eta sei urteko ume
bat zaintzeko, pertsona
bat behar da.
943028855. 20:00etatik
aurrera deitu.

➡ Rock talde batek
bateria jolea behar du.
Esperientziaduna.
610883688. Arratsalde-
tan deitu.

➡ Neska bat behar da
jatetxe bateko barran
lan egiteko. Larunbate-
tan, igandetan eta jai
egunetan. 675718192.

➡ Buzoneatzaileak be-
har dira Goierriin.
943304308.

➡ Urrats Akademiak
irakasleak behar ditu:
ingenieritza, fisika, ma-
tematika... 670562800.

➡ Neska bat behar da
dendari lana egiteko
Beasainen. Urte guztira-
ko lana eskaintzen da.
943885500.

eskaintzak

➡ 21 urteko goierritar
mutil bat arratsaldeeta-
rako lan bila dabil.
637781384.

➡ Magisteritzan diplo-
matutako neska euskal-
duna prest dago klase
partikularrak emateko.
696597878.

➡ Kimikan lizentzia-
turiko neskak, kimika,
fisika eta matematikako
klaseak ematen dizkie
DBH eta DBHO maile-
tako ikasleei.
699398477.

➡ Emakumezkoak
prest, autoaren jabeak,
garbiketarako egiteko: el-
karteak, atariak, eskai-
lerak, lokalak...
605724457.

➡ 19 urteko mutilak
peoi bezala lan egingo
luke, behar denean. Gi-
da baimenarekin.
685711303 -
943085508.

AK
ANDREAK

jantziak - osagaiak

Neurriak: 42tik 60ra

Denboraldiko arropa berria prest!

Tel.: 943 16 16 72
Andre Mari, 1 (Udaletxe ondoan)
BEASAIN

maizpide

l a z k a o

Deitu eta eman izena:

943 88 92 31

lazkao@maizpide.com

www.maizpide.com

✓ Barnelegian hilabeteko ikastaroak.

Familia euskaldunetan egoteko aukera.

✓ Ordukako ikastaroak.

✓ Larunbatetan Alfabetatze eta EGA ikastaroak.

✓ Autoikaskuntza.

euskara **BIZI!**
euskaraz **BIZI!**



Ordizia 1973, Santa Ana ikastetxean

Ordiziako Santa Ana ikastetxeko ikasleak dira 1973. urtean egindako argazkikoak.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Eloy Muriel, Carlos, Juanjo Garmendia, Olea, Alvarito, Mendigar, Enrike eta Loiar-te, Xabier Lonbide.

Erdiko ilaran: Bittor Merino, J. Manuel Leunda, Amundarain, Egilegor, Julio Gonzalez, Tolosa, Martin Legorburu, Se-rrano, Ruben Sanchez, Apaolaza, J. Manuel Munduate, Juan Otegi, Turrientes, Dorronsoro eta Blanco.

Beheko ilaran: Cano, Martinez, Javier Agundez, Morales, Jimenez, Tizon, Barandiaran, Alkaiaga eta Urrujulegi.

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN




SUTAN

TXIMINIAK
EGUR BARBAKOAK
ESTALDURAK
(Harlanduak-simulazioa)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302



suquia

elektragailuak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com



Berogailu perfektua
existitzen da

EMISORE TERMIKOA

- ✕ Obrarik gabe
- ✕ Kontsumo bajua
- ✕ 10 urteko garantia

*Aurrekontuak
konpromezurik gabe*



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

Goierriko
kirol proiekturik handiena,
guztiontzat

zuretzat



www.antzizar.net

tel. 943 887900



BEASAINGO UDALAK